

balkeke

2003ko ABENDUA,
117. ZENB. DOHAINIK



2004ko egutegia

BALENTZIAGako langileen
etorkizuna kolokan

Azkena ote?

Azkenekoa. Kitto...aurretengoz esan nahi dugu. 2003 urtea ere badoa, eta berarekin aurtengo Baleikeren jarduna. Horrelakoetan azterketa egiteko ohitura izaten da, baina gu neurtzen gaituena zu zarenez, zuretzat lagako dugu lan hori. Inporta ez bazaizu, beti ere...

Guk, bien bitartean, gureari eutsiko diogu. Urteko azkenekoa dela-eta, aldizkari mardula prestatu dizugu. Ia-ia, denda handietatik bidalita, behin eta berriro buzoia gainezka uzten dizkiguten iragarki potolo horien antzekoa. Orrialde kopuruez ari gara, ez edukiaz.



Abenduko Baleikek *ze berri* atalean denetik uztartzen du oraingoan. Poza eta tristura. Poza euskarazko

egunkari berri bat, UROLA-KOS-TAKO HITZA laster gure artean izango deneko albisteak eman digu. Tristura, berriz, herriko hainbat enpresek eta langilek bizi duten krisiak eman digu.

Bisajea alaitzeko Ixiar eta Estitxu Eizagirre ahizpa erdi zumaiarrekin *jardunian* aritu gara. Jator askoak biak ere.



Ur haunditan lasaitasunez bizitzen ikasteko bi bide erakutsiko dizkizugu: Tai Chi Chuan, eta kontrol mentala. Lasai, ez pentsa Asia alde-raino joan garenik, Zumaian bertan ematen dituzte-eta ikastaroak.

Gabonak datozela-eta, lehen beti esaten zen turroia zetorrela gabonekin. Orain esan daiteke, euskal selekzioak etortzen direla gabon garaian. Baina turroiarekin gainezka egiteko

joera dagoen bezala, euskal selekzioen jardunak gosea kendu ere ez digu egiten. *Izerdi patsetan* Martxel Toledo, ESAITeko kidearekin hitz egin dugu.

Irakurketarako tartean, *ze letuan*, dendarien elkarateak antolatutako literatur lehiaketa irabazi duen Olatz Iruretagoienaren ipuin dotorea izango duzue.

Hauxe, zerbait nabarmentzekotan Abenduko Baleike. Beste gauza mordoa ere badira, baina horiek aurkitzea zure lana izango da. Ah, portzierto, datorren urtean ez galtzeko 2004ko egutegia oparitzen dizugu.

Ondo bukatu urtea, eta datorrene-ra arte!!



HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea
Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet,
Dani Carballo, Belen
Golmaio, Ixiar eta Estitxu
Eizagirre, Karmelo Arroiababe,
Gorka Ormazuri,

Xabier Aizpurua, Ibon
Aizpurua
Izaga Garzia,
Beñat Fernandez de
Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea, Ander
Hormazuri, Juan Luis
Romatet

Diseinua eta maketazioa
Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa
Baleike

Publizitatea
943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza
Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale
Lege gordailua
SS-405/94
ISSN
1136-8594

Argazkilaria:

Eva Franco
Alberto Elozegi
Xenpelar Dokumentazio
Zentroa
(Jon Maiaren argazkia)

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



Aginaldo garaia badator

LEHEN, GARAI batean, bai egoten ginela aginaldoaren zain...! Orduko aginaldoek eta oraingoek ez dute zerikusirik, horixe entzun diot orain gutxi edadeko bati, eta egia izango da, baina egia dena da lehengo beharrak eta oraingoak ezberdinak direla; lehen familia askotan "premia" zegoen, orain gure artean egoerarik okerrenean dagoenak ere "premia" hitzaren benetako balioa ezagutzen ote du?

Denetik dugu, eta horrek arriskua dakar: gauzak beren benetako balioa galtzen ari dira. Eguberri garai honetan, dirua barra-barra botatzen dugu garaian, hauskarketarako gai bat baino gehiago bururatzen zait.

Gure etxeetako zenbat sukaldetan egingo dira otordu bereziak?, Baina egia esan behar bada bereziak lehen izanango ziren, zeren urtean jaten ez dugun zenbat jaki dastatzen dugu eguberri garaian? Opariena da bestea. Zer oparitu ez dakigula ibiltzen gara, arrazoa, denetik dugula eta nahiz eta opariek beti egiten duten ilusioa, asmatzea oso zaila da.

Aginaldoak...lehen a zer nolako estimazioa!, orain azala ere badugu nagusiari zer aginaldo eman eskatzeko...(Aizu, gure etxean botilak baino hobeto urdaiazpikoa, edo ematen diguzun urdaiazpiko merke horren truke, txanponak berak hobeto!)

Nik gauza hauek guztiak ikusi eta entzun ondoren pentsatu ohi dut: zein da benetako egoera! Gure gizartean bakea eta ulermenaz gain zer behar da? Edo benetako beharrik ba al dago, edo ba al dugu? Okerrena da gaztetxoei zer erakusten ari garen eta nola ari garen ohi-tzen...Gure gaztetxoek jakingo al dute gauzen benetako balioa zein den, eta zenbat kostatu zaien gure aurrekoei gu horrela bizitzeko?

Aginaldo hitzak ez al du bere benetako balioa galdu?



Arritxu Iribar

ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAI KLINIKA

Paseo de los Fueros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20750 ZUMAI (Gipuzkoa)

Garretxe
Rafael Insausti Elgoibar

INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea Tel. 943 861523

Kresala
— edergintza —

Amiako Plaza
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Jimena Zumai

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

OPTIKA ZUMAI

Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
ZUMAI

Hostoak lurrera erortzean

ZUHAITZETAKO HOSTOAK lurrera erortzean biluztuta uzten dituzte inguruko basoak, adar soilduak bakarrik geratzen zaizkie oraintxe zuhaitzei. San Martinak pasa ondoren hasten omen da benetako negua, eta aurten ere horrela izan da, nahiz eta pixkat bat gehiago luzatu den bere izena daraman udaratxoa, "veranillo San Martin", alegia.

Lurrak ere eman ditu aurten eman beharreko fruituak, uzta bilduta dago. Batzuentzat uzta-bilketa besteentzat baino hobeto joango zen, baina guztiek egin dituzte aha-lerinak lurrak emandakoa jasotzen. Batzuek babarruna (nahiz eta aurten urte exkaxa izan), beste batzuek txakolina egiteko mahatsa, besteek berriz sagardoa egiteko saga-

rra, intxaurrak, txerria ere hasita, e.a...

Bueno! Gosete handiren bat etorrita ere ez dago beldurrik, ez horixe!

Negu usaina gero eta handiagoa da bazterretan, eta lehen elur malutek ere zuritu dituzte Euskal Herriko mendi-ttonttorrak, baita ttonttorrak ez diren leku batzuk ere. Jendea, udaberrian gordeta utzi zituen eski edota snow-ko tablari hautsak kentzen hasia da mendian goitik behera lehenengo jatsierak egiteko. A ze elur-grüña dedio!

Tira, badator negua... On dagizuela!



Ibon Aizpurua



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



Ai eneee iiii



Xa2 Gehibilau

Ai ene!!!! Lagundu!!! Ese O Ese!!!
112!!!! Pantaila aurrean lerdo
aurpegiarekin gelditu naiz, gure Triniren
herena zerekin hasi behar dudana ez
dakidala. Hirutik bateko parte hau

betetzea, 1/3 alu hau itxuratzea, maixu Ramonen garaiko
zatikiak ulertzea bezain zaila zela jakin izan banu... Baina
kitto! Etorri zait zeresana. Portugalen ezagutu genuen lan
mundua baldintza txarrekoa baldin bazen (Aluga-se, Goian
Bego!), mundu guztian erabat nagusitzen ari den zabor
kontratuen gaia ere ez da txantxetako. Analisi zorrotzetarako
espazio eta gaitasunik ez ordea, eta kutixi bat ekarri dut.
Delako zabor kontratu edo zarama lan hauei deitzeko
izen berria asmatu dute, auskalo nongo bulego
xelebretan: "McJob" omen da sindikalismoa maionesa
eta ketxuparen pare jartzen duen kontzeptu berria.
Langileen eskubideak nahiko Mcalak baldin baziren,
Mcina bat izerdi bota beharko da berriz ere, Mcaben
zotz!!! McJob alajaina, ingelesak ekarri du orain ere
gurera abangardia kontzeptuala. MerkeJob edo
XimorWork bezelakoek ez al digute balio?
Bibotedun prestu horrek, emaidak aholku, lan mundura
salto egiteko bertigoz natxiok eta!

Ez Mcurtu iiii

Karmelo arroiabe



Epikaixo arraioa!! Ur sakonetan bataiatu haiz gure
Trinidadeko eliza santu honetan. Gaur egungo lan
munduaz jarduteak eragiten duen zirrarak hire
ilekizkur hori ere berehala tentetuko likek. Badituk
urte batzuk AGE musika taldeak "Lana txarra da"
abesten zuela, eta hori orduko lan baldintzak oraingoak baino hobeak
zirela. Mc Joberi buelta emateko Job santuak baina pazientzia gehiago
beharko diagu.

Izena aldatetak Izana aldatu nahi dik, baina hori ezinezkoa denez, haren
izkutatzearekin konformatzen dek. Hori modan zegoen, eta zirugia
plastikarekin batera zirugia kontzeptuala ere gureganatu diagu.
Corporación Hitzestetika moduko zentru ezezagun batean, izena edo
kontzeptoa "operatu", esangura goxoago eta ederrago idurikatzen.
Historiaren zehar lan baldintza desberdinak izan dituk, batzuk besteak
baino hobeak, baina lan harremana beti bakarra izan dek: esplotazio
harremana, lan indarraren esplotazioa. Kontzeptu hau zaharkitua dagoela
esango ditek, irribarretxo bat tarte, marxista nostalgikoei dagokiela etab..
Ez duk apenas inon irakurri edo entzungo, ez aipatzean desagertuko balitz
bezala, baina hor jarraitzen dik eguneroko bizitzan bere betiko gordintasun
osoarekin. Demokrazia ekonomikoak ez dik inork ezer aipatzen.
Benoa, nik ere bertigoak sentitzen dizkiat noizbehinka, eta sendagileak
dioenez, burua askotan makurtzeagatik omen, beraz, altxa burua, bete
petxua eta aurrera. Eta hi Gorka, maisuok ere bertigoak sentitzen al
dituzue zeuen lanetan? .

Ai ama!!

Gorka Ormazuri



Hau enbidea!! Xa2ren aholkulari bihurtu behar bere
lehenengo partehartzean. Ez daukak lotsarik, motel!.
Egia duk, Mcjob, ximaurwork edo nahi duan bezala
deituta ere, lan kontua ez dela samurra. Gainera,
Mcjob hauen aurrean, Karmelok esan bezala, Mcurtu
gabe ibili behar baduk lanik topatu al duk?! Hau da
hau dilema!

Nik, egia esan, ez diat horrelako egoerarik bizitu eta, gezurra
badirudi ere, lan bila hasi eta ia berehala topatu nian lana eta,
gainera, Mcjob izan beharrean Arzaklan motakoa. Baina ezin
diat ukatu lan kontu horrek izugarritzko bertigoa sortu behar
duela.

Dena dela, bertigo kontu hori ez duk lan bila dabilenaren
sentimendua bakarrik, lana duenak ere (hik, Karmelo, ondo

esan duan bezala) pasatzen dizkik honelakoak eta nire
lana ez duk salbuespena; are gehiago, beti aipatu izan
duk irakaskuntza bertigo gehien sortzen duten
lanbideen artean eta ez duk ez arazo txikia. Zulo iluna
duk beldur kontrolaezinak sortutakoa eta irtenbidea uste
baino zailagoa eta motelagoa duk. Nik, dakidala, behin
sentitu diat honen antzeko bertigo, hasi berritan, AEKn
Gasteizen, eta ez zioat inori opa egunero sentitzen nuen beldur
sakon eta ilun hura. Distantziak dena bere lekuan jartzen duela
eta, beharbada, horixe duk guk ere bertigo egoeretan egin
beharko genukeena: distantzia hartu eta gauzak bere lekuan
ikusi, puztu gabe, dena baita erlatiboa.
Aholku bat ematekotan Xa2 hauxe esango nikek hire hizkuntzan:
hmn dn lsi hrtza bzlkrik z zgk + zknen lrtko dk zozr. Sgru!

Larri dabil Balentziaga Ontziola

Europako ontzigintza astintzen ari den krisia Zumaiara ere iritsi da

Azaroaren bigarren hamabostaldian joan zen momentuz Balentziaga Ontziolako lauorgeri bat langileek egin duten azken itsasontzia. Orain lanik gabe daude, eta lanik gabeko tarte honetan ikastaroak egiten ari dira langileak. Nagusiak ari dira pare bat itsasontzi egiteko kontratuak negoziatzeko, baina oraindik ez dakite lan horiek Zumaiara egitea lortuko dutenik. Langileak estutzen hasita daude, eta etorkizuna beltz samarra ikusten dute. Momentuz, gabonetatik bueltan enpresak hamabost eguneko oporrak eman dizkie. Negoziatzen ari diren lanak lortzen ez badituzte, jakin ahal izan dugu enplegu erregulazioa egiteko arriskua dutela. Nagusiek langileei ezer esan ez badiete ere, aukera ilun hori hor dago. Zoriturarekin, inguruko hiru ontziolatan egoera horretara iritsi dira.

Hala ere, badira itxaropena izateko datu batzuk. Garai honetan kontratua bukatzen zitzaien langileei berri- tute egin diete kontratua, eta horrek itxaropena zabaldu du langileen artean. Baita enpresak lantegian egin dituen zenbait inbertsiok ere. Denborak esango du etsipena ala itxaropena nagusituko den.

Krisi bortitz honen motiboak Asia aldean bilatu behar omen dira. Azkenaldian, lehen Europan egiten zituzten itsasontziak Asian egiten ari dira. Arrazoia, bat eta bakarra: paraje haietan esku lana Europan baino askoz merkeagoa izatea. Kalitatea hobea da



Europako ontzioletan, baina diruari erreparatu diote armadoreek. Horri Europako Batasunak ematen dituen laguntza eskasak gehituz gero, krisiaren motiboak agerian daude.

Zumaiako beste lantegi batzuetan egoera ez da hobe

Egurkorena da nabarmenezkoa. Lan eskaera asko jaitsi zaie, eta zenbait egunetan langile askok jai egin behar izan dute lanik ez dagoelako. Momentuz, irauteko badute lana, baina etorkizuna dago kolokan. Orain altzairuen azoka batzuk egiten dira, eta horren esperoan daude langileak. Eskaerarik jaso ezean, orain urte batzuk bezala, Egurkoko langile batzuek beste enpresa batzuetara jo beharko dute lanera.

GKN Dribeline-n (lehen Ayra Durex zena) gertatzen ari dena ere aipatzekoa da. Ontziolaren eta Egur-



koren aldean, enpresa handia da, eta gainera, multinazional erraldoi baten barruan dago. Horrek krisiaren ondorioak gutxitu egiten dituela dirudi, baina azaroan ebentual batzuk kalera bota dituzte. Beste ebentual guztie abendu erdialdean bukatzen zaie kontratua, eta horiekin gertatzen denak esango du etorkizuna nolakoa izango duten GKN Dribeline-n.

Krisi garaian da ekonomia, eta horrek era batera edo bestera guztiak astintzen ditu. Dударik gabe, egoera txarra gehien nozitzen dutenak enpresa txikiak dira. Ea egoera irauli, eta hurrengo batean albiste pozgarriak kontatzeko moduan garen.

Etsi ala eutsi

Elkarrik 2004ko martxotik aurrera egingo duen Bake Konferentziaren aurkezpena egin zuen Jonan Fernandezek Oxforden

Aurkezpenean Elkarriko koordinatzaile nagusia den Jonan Fernandezek beraien ekimena zein izango den, eta zergatik antolatu duten azaldu zuen. Hasi, duela urtebete bukatu zen Bake Konferentziaren laburpenarekin hasi zen. Lau helburu bete zituzten, baina bat ez. Lortutakoak hauexek dira: nazioarte mailan izugarritzko laguntza; gizartearen parte hartzea; Bake Konferentzian izan ziren alderdi politikoen arteko elkarriketarako metodologia; eta akordioaren bi zirriborro. Bete ez zuten helburua, aldiz, hauexek: bi zirriborroak akordio publikoan gauzatzea.

Urtebete honetan gauza asko gertatu dira, eta gehienak txarrak. Egoera horren aurrean Elkarrik bi jarrera ikusten zituen: etsi ala eutsi. Bigarrenari helduta antolatu dute Bake Konferentzia.

Eskaera Eskubidea

Bi helburu izango ditu 2004ko martxoan hasiko den Bake Konferentziak. Batetik, gizarteari garrantzia eman; eta bestetik, elkarriketa defendatu egoera zail honetan.

Martxoa iritsi bitartean, gizartearen

parte hartzea izango da garrantzitsua. Hori lortzeko, Elkarrik demokrazian oso gutxi erabiltzen den Eskaera Eskubidea erabiliko du. Gizartean, gutxienez 100.000 sinadura lortu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako parlamentuetara eramango dituzte sinadura horiek eskaera honekin: alderdi politikoen elkarriketarako mahaia osatzea. 100.000 sinadura nahikoa dira Parlamentuek eskaera hori tramitatzeko. Martxoan eramango dituzte bildutako sinadurak bi parlamentuetara. Gizartearen parte hartze zuzenarekin Bake Konferentziari babesa eman nahi zaio.


Beste helburua bizi dugun egoera zail honetan elkarriketa defendatzea da. Blokeo egoeran gaudela azaldu zuen Jonan Fernandezek. Lau faktore dira egoera honetan gauzkatzenak: indarkeria; elkarriketaren ukazioa; aniztasunaren ukazioa; eta herri borondatea ukatzea. Elkarrik blokeoa gainditzeko kontrako argumentuak erabiltzen ditu: indarkeriarik eza; elkarriketa; aniztasuna; eta herri borondatea errespetatzea.

Azken urteetako blokeo egoerak jarraitzen badu ere, badira aldatu diren



gauza batzuk. Onerako eta txarrerako. Txarrera egin dugu Batasunaren ilegaltasunarekin. Onera, berriz, mahai gainean dauden proposamenekin. Azken horiek aukera latza direla azaldu zuen Fernandezek. Proposamenak lautan banatu zituen: Eusko Jaurlaritzaren estatutu berria; PSE-EEren estatutu gehiago; PPren estatutu gutxiago; eta ezker abertzaleko alderdien estatutu berria baino gehiago.

Garbi esan zuen Jonan Fernandezek. Proposamen horien eztabaidan dago konponbidea. Hortik kanpoko guztia gatazka eta sufrimendua luzatzea dela gaineratu zuen. Aukera latza da oraingoa, baina aukerak mehatxu handiak izango ditu. Estatuaren eraso bortitza eta indarkeria aipatu zituen.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 885369

HITZA badator

Urola-Kostako herri guztietako albisteen berri euskaraz emango duen egunkaria laster izango da gure artean

Tolosaldean ekin, eta Oarsoaldean eta Lea- Artibain jarraipena izan duen proiektua gure bailarara iristeko lanean ari gara. Datak ematea arriskutsua bada ere, otsaila hasierarako kalean izatea espero da. Azkoititik Oriora bitartean dauden 11 herrietako albistekak bilduko ditu egunkari berriak.

Proiektuaren bultzatzaileak Euskarazko Komunikazio Taldearen baitan dagoen Bertako Hedabideak enpresa, eta Urola-Kostako euskara elkarte gehienak dira. Azkoitiko eta Oriokoak izan ezik, gainontzekoak sartu dira proiektuan. Baita Baleike ere.

Bi helburu nagusi izango ditu HITZak: batetik, euskararen normalizazioa lortzeko bidean jendeak euskaraz irakurtzeko ohitura hartzea. Eta bestetik, herriz herriko informazioa jasotzen duten egunkariaren artean HITZA erreferentzia iza-

tea. Horretarako kalitatezkoa eta anitza izango den egunkaria prestatzen ari gara.

UROLA-KOSTAKO HITZA kudeatuko duen enpresak hiru ardatz izango ditu: Bertako Hedabideak, bailarako euskara elkarteak eta gizarte eragileak. Bertako Hedabideak enpresak % 35eko parte hartzea izango du; euskara elkarteek % 45ekoa; eta gizarte eragileek % 20koa. Gizarte eragile bakoitzak enpresan sartzeko 150 euro ipini beharko ditu.



HITZAren diru iturriak

Tamaina honetako proiektuak dirua behar du aurrera egiteko. Hiru bide erabiliko dira dirua biltzeko: publizitatea; harpidetzak; eta diru laguntza

publikoak. Harpidetzari dagokionez, lehen bizpahiru hilabeteetan dohain banatuko da, baina gero borondatezko laguntza eskatzeko asmoa dago. Laguntza hori urtean 40 eurokoa izango da. Helburua da aurrera egin ahala, autofinantziazioa gero eta handiagoa izatea.

Baleike eta HITZA osagarriak dira

Azaroko Baleiken aipatu genizuen aldizkariari buruzko bilera egitekoak ginela. Bilera egin genuen, eta bertan jendeak Baleike eta HITZA osagarriak izango ote ziren kezka azaldu zuen. HITZAren sorrerarekin aldizkariako atal batzuk aldatu egin beharko ditugu, gehienbat albistek biltzen dituen. Lan hori HITZak beteko du, baina beste ataletan ez dugu aldaketa handirik egin behar. Gainera, bileran hainbat proposamen berri plazaratu ziren, eta pixkanaka joango gara proposamen horiek gorpuzten. Bilera probetxugarria izan zen, eta garbi gelditu zen Baleikek etorkizuna duela.

Urola- Kostako Hitzak lanpostu hauek bete behar ditu:

KAZETARIAK

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Kazetaritza ikasketak izatea, Kazetaritza ikasten egotea, edo kazetari lanetan esperientzia izatea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.
- Quark X Press programa ezagutzea.

BANATZAILEAK UROLA-KOSTARAKO

- Lan baldintzak: egunean 4 ordu.
- Goizeko 9:00etatik 13:00etara.
- Astearen sei egun. Asteartetik igandera.

KOMERTZIALA

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasun edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.

KUDEATZAILEA

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.

- Kudeaketa mailan ezagutza izatea.

- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.
- Ofimatika ezagutzak izatea.

Interesatuak deitu lehenbailehen

943 300228 telefono zenbakira

Epea: abenduak 17

Kurrikulumak nora:

ldazkaritza@bertako .net

Banatzaileen kasuan deitu:

943 300228 telefono zenbakira

Mozioa gora, mozioa behera

Azaroko Udal batzarrean mozio asko eztabaidatu zituzten herriko alderdi politikoei

Saltsa handi samarrak izan zituzten eztabaidetan. Batez ere, bi gaitan: inmigranteen auzian, eta Euskal Herriko Nortasun Agiriarenean. Bi gai horietan ika-mika handiak izan zituzten.

Inmigranteen auzian, azaroko Baleiken azaldu genizuen Ezker Batuak erroldako datuak Barne Ministerioari ez emateko proposamena aurkeztu behar zuela. Aurkeztu aurkeztu zuen, eta onartu ere bai. EBak berak eta Izustarrik aldeko botoa eman zioten proposamen horri; EAJ eta EA abstenitu egin ziren; eta PSE-Eek kontrako boza eman zuen.

Gai horri buruzko eztabaida, ordea, ez zen hor bukatu. EAJk gai berari buruzko beste mozio bat aurkeztu zuen. Alderdi jeltzalearen ustez, ez dauka zentzurik Barne Ministerioari erroldako datuak ez ematea, Espainiako

Gobernuak datu horiek INEM-en bitartez jaso ahal dituelako.

Mozio horren bozketan, EBk izan ezik, gaitz nontzeko guztiek aldeko boza eman zuten. Onartu egin zuten, hortaz.

Ondorioz, bi mozioak, bai EBrena eta bai EAJrena daude onartuta. Udaletik esan digutenez, Barne Ministerioak datuak eskatzen dituen erabakiko da mozio bietatik zein erabili.

EHNA

Beste gai korapilatsua EHNArena izan zen. Euskal Herriko gatazkarekin zerikusia duten beste gai askotan bezala, alderdi abertzaleek ez zuten elkar hartu. Harritzekoa. Kontua da, bi mozio aurkeztu zituztela, bat Izustarrik, eta bestea



Eusko Alkartasunak. Izustarrirera berak bakarrik babestu zuen; EBa abstenitu egin zen; eta EAJk, EAK eta PSE-Eek ezezko botoa eman zuten. Ondorioz, ez zuten onartu.

Beste mozioa, EArena, onartu zuten. EAJ eta EA alde azaldu ziren; Izustarri kontra; EBk abstentzioaren alde egin zuen; eta PSE-Eek kontrako boza ematea erabaki zuen.

Orain ikusi egin beharko da Udalak nola bideratzen duen EHNA egiteko prozesua.

ilarzi

Alai auzategia, 2

Tel. 943 14 33 24

Endaola

TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

Itzurrun
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
- PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurrun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

EGUZKI
PUB

Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

EGOKI

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

EHNA: sinbolismotik erabilgarritasunera

Abenduaren 13an eta 14an Euskal Herriko Nortasun Agiria egiteko aukera izango da Oxforden

Udalbiltzak orain urte batzuk martxan jarritako ekimena herri askotan egin da. Orain, gure herrian, Zumaian izango dugu EHNA egiteko aukera gai horretan sentsibilizatuta dagoen herri-tar batzuen bitartez. Ekimenaren ardur hartu dutenek bi helburu dituzte: ahalik eta jende gehienak EHNA egitea; eta eguneroko bizitzan jendeak EHNA erabiltzea. Euskaldunak gaila era sinbolikoan adierazteaz gain, egunero erabiltzeko balio behar du euskaldunon nortasun agiriak.

Herriko hainbat eragileren babesak du ekimenak. Batzuk aipatzearen, Arte Taldearena, Bertsolari Elkartearena eta Triatloi Taldearena. Beste era bateko babesak ere eman dakiokela diote. Esaterako, dendariei, kirol elkar-teei, bankuei eta Udalari eskatzen diote euren jardunean EHNAren erabilera onartuz ekimen hau babestea.

Udalean mozioa

Aldameneko orrian irakurri duzuen bezala, azaroko Udal batzarrean Eusko Alkartasunak aurkeztutako mozioa onartu zuten, eta Izustarrirera atzera bota. Onartu ez arren, ekimenarekin aurrera egitea erabaki dute, eta abenduaren 13an eta 14an Oxforden izango

da EHNA egiteko aukera. Bi mozio aurkeztu beharrean, aldekoek bat egin eta bakarra aurkezteko saioa egin zutela aipatu digute, baina EA eta EAJ-ren erantzunik ez dutela jaso gaineratu digute.

Udalaren babesik ez izateak eragozpenak sortuko dizkietelakoan daude. Babesarekin gauzak asko erraztuko ziren, erakundeen babesa garrantzitsua delako gizarteri ekimen bat aurkezteko garaian. Baina orain ere, beste askotan bezala, abertzaleek ez dute bat egin, eta bakoitzak bere alde-tik jo du.



EHNA egiteko

Abenduaren 13a eta 14a, larunbata eta igandea, Oxforden atzealdean (Errotako izkinatik sartuta), ordu-tegi honekin:

- Larunbatean goizeko 11:30-13:30 eta arratsaldeko 17:30-19:30etara
- Igandean goizez bakarrik: 11:30-13:30.

Bi egun horietaz aparte, ordea, izango da aukera egiteko, hainbestean behin, eta adieraziko dugu bere garaian. Bestalde, EHNA egiteko, honakoak

behar dira:

- 4 argazki, karnet tamainakoak
- Errolda-agiria, Udalak ematen duena (ez da ezinbestekoa norbera joatea, eta telefonoz ere eskatzea badago)
- 15 euro
- 14 urtetik beherakoek, gainera, familia-liburuaren fotokopia (eskatzailari dagokion zatiarena) ere eraman beharko dute.



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunetan: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behea

Tel. 943143310

Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
french
euskara
englandi
español
catalonian
suomi basc
català finnois
français anglais
catalan français
castellano finnish
inglés baski catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



Pako Aristi: "Idazle hasiberrientzat konfiantza lortzeko bide bat izaten dira horrelako lehiaketak"

Idazle urrestildarra Julene Azpeitia literatur lehiaketako epaimahaian da aurten ere. Abenduaren erdialdera erabakiko dute nortzuk diren irabazleak. Emango al digu primiziarik?

Lanez gainezka harrapatu dugu Pako. Poesia liburua argitaratu berri du, baina bere etorriak ez du etenik, eta orain beste asmo batzuekin dabil.

Epaimahaiko batek zeri erreparatzen dio baten lana edo bestearena aukeratzeko garaian?

Bi interes gune izaten dira, zer kontatzen den etan nola kontatzen den, hau da, gaia eta idazkera. Lehenengo galbahea hizkuntzarena da, ideiarik politena ezin liteke onartu gaizki idatzia badago. Txukun idatzita dagoen lan baten aurrean, beste merezimenduak bilatzen hasten zara: gaia, ikuspuntua, dokumentazioa, ezustea, pertsonaien sinesgarritasuna, testuaren indarra, bukaera, ea folio kopuru egokian idatzia dagoen...

Lan dezente dituzu irakurtzeko. Igandeko mezatan apaiza sermoia egiten ari deneko momentua txarra ez lanak irakurtzeko...

Normalean une horretan egunkaria irakurtzen dut, gainera gero eta sermoi laburragoak egiten ditu, alfertzen ari da apaiza ere, eta ez dit ezertarako denborarik ematen. Lehen egunkaria amaitzen nuen, gaur ez naiz nazioarteko albisteetara ere iristen.

Horrelako lehiaketak zertarako dira?

Idazle hasiberrientzat eta konfiantza lortzeko bide bat izaten dira, lehenengo oniritzi publikoa euren idazlan baten aurrean, hori garrantzitsua da. Gero idazten jarraituko al duen edo ez, ez dakigu. Eta herriari ematen dio halako ukitu kultural bat, idazleen harrobia



zaintzen ari direla edo iradokitzen duen ukitu bat, gero askotan horrela ez izatea gerta litekeen arren.

Zu zeu ez zara oso lehiaketa zalea, baina epaimahaian zaude. Kontraesana ez al da?

Kontraesanak! Zer egingo genuke bizi-tzan horiek gabe! Aspertu, dudarik gabe! Ni ez naiz ipuin-epaile askotan izaten urtean zehar, Zumaiaiko hau halako gauza afektibo bat edo da, eta batez ere oso ondo antolatua dagoelako hartzen dut parte, eta ondo ordaindua. Aurten Euskadi sarietarako epaile izateko deitu zidaten, eta ezetz esan nuen bi arrazoi horiengatik, antolaketa eta ordainketagatik. Ez ziren nire gus-tukoak.

Bestalde, Zumaian literatur tailerra eman zenuen orain bizpahiru urte. Gure herrian ba al da literatur girorik? Ba al duzu harremanik tailerrean parte hartu zutenekin?

Hain zuzen ere, galderak banaka egitea da tailerrean erakutsi nuen gaietako bat. Harremana badut tailerreko hainbatekin, eta giroa badagoela esango nuke, txikia baina existitzen dela aitortzeko adinakoa. Gainera, nire ikasleek atera dituzte liburuak eta sariak, Azkue analetako batek eta Joseba Ossak, esate baterako. Ez dut,

noski, nire meritutzat jotzen; haiek bazeukaten talentua ni agertzerako.

Oraintxe argitaratu duzu poesia liburu bat. Zertaz da? Zein gai jorratzen dituzu? Eskerrak zenbat orri dituen ez duzun galdetu. Ez da elegantea hori galdetzea idazle bati. Elegantea da liburua irakurri eta esatea, aizu, 52. orrian halako diozu, zergatik?

Etorkizunerako proiekturen bat?

Badauzkat hainbat asmo, bai, baina gehiegi zehaztu gabe oraindik. Nobela eder bat idatzi nahi nuke, baina lehenengo istorio bat agertu zain nago. Eta gero "ederra" egiteko gauza izango naitzen ikusteko dago.

Berririo lehiaketara bueltatuta, primiziarik ematerik bai?

Ba ez, baina aurreko urteetako esperientzia kontuan izanda, zera agertu nahi nuke: normalean hogeitaka ipuinetatik bost edo sei egoten dira onak, edo zortzi, saria edozeini emateko modukoak, eta pena ematen digu nabarmendu diren guztiak saritu ezinak. Beraz, irabazten ez dutenei hau esango nieke: ez duzu irabazi, baina pentsa ezazu zurea beste seirekin batera irabazi zezaketenen artean geratu dela.

Kongoren aldeko ekimen gehiago

Dirua bildu eta kongotarrei laguntzeko ekintzak antolatzen jarraitzen du Zumaia Kongolagun taldeak. Rifa ateratzea erabaki dute oraingoan. Hiru sari zozketatuko dituzte: lehenengo saria Imanol Elortza margolari getariarraren koadro bat izango da; bigarrena iaz antolatutako erakusketako hiru koadro; eta hirugarrena erakusketako hartako beste bi margolan. Erribera kalean lehen zapata denda zegoen tokian izango dira boletoak saltzen. Zerbait saritua umeen loterian saritutako bera izango da. Beraz, urtarrilaren 5a baino lehen erosi beharko dira boletoak.

Santo Tomas bezperan ere badute zerbait antolatzeko asmoa. Kofradiako plazan postua jarriko dute, eta txistorra

eta gainontzeko jeneroa salduta aterako duten dirua kongotarrei laguntzeko izango da.

Bestalde, azaroaren 1ean Itziarko azokaren barruan, postua jarri zuten, baina eguraldi txarrragatik azokak ez zuen nahi adinako arrakastarik izan. Kongolagun taldekoak eta laguntzaileak umore onez aritu baziren ere.

Itziarko tristura alaitzeko, ordea, Kongoko berri onak jaso zituzten. Non-

bait, egoerak zertxobait hobera egin du azkenaldian. Gainera, Justo Osak abian jarritako tailerra ondo doa, eta gero eta lan eskari gehiago jasotzen dituzte.



Festa egoitza berria inauguratzeko

Irakasleak eta ikasleak bildu ziren. Oraingoak eta lehengoak. Bertsolari Eskolakoak ere bertaratu ziren, eta guztien artean festa dotore askoa egin zuten.



Euskararen Aholku Batzordea osatzen



Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitan, lehenengo urratsa Udala aholkatuko duen Aholku Batzordea osatzea izango da. Herriko taldeak eta eragileak bilduko ditu batzorde horrek. Herriko taldeek eta eragileek jaso dute dagoeneko Batzordean parte hartzeko gonbitea. Udala erantzunen zain dago, eta behin erantzunak jasota lanerako prest izango da Aholku Batzordea.

Jon Maia finalean

Tolosan jokaturako azken finalaurrekoan Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerako txartela nahiko erraz lortu zuen gure ordezkariak. Lehen postua bera ere esku-eskura izan zuen Jonek, baina azkenean 3 puntuko aldearekin irazuk hartu zion aurrea. Bi "beteranoekin" batera Jon Martin oiarzuarrak ere saio dotorea egin zuen eta hirurak izango dira Irunen abendua-ren 14an jokaturako den finalean.

Saioa konfiantza handiz eta oso seguru hasi zuen Jonek, zortziko handian ofizioa eta oso ondo jarraitu zuen hamarreko txikian ere. Puntukako ariketa Irazurekin ohartzerako amaitu zitzaion eta bakarkako lanean nabarmendu zen gehien zumaieraren kategorian. Oso zentratuta eta Karidadeko Bentaren doinu luze bat hartuta —habaneraren neurrikoa—, bi bertso bikain bota zituen. Pena izan zen, ordea, azken ariketan bete-betean ez asmatzea, 6 puntuko motzean seriotik hartu zutelako Mantxi eta biek umore puntua eskatzen zuen gaia.

Kontuak kontu, finalean da Jon Maia eta gauza handiak egiteko aukerarekin, gainera. Zumaia Bertsolari Eskolak bazkaria eta autobusa antolatu du Irunera joateko. Bazkaria Zumaia Hotelean izango da, arratsaldeko 14:00etan. Autobusa hotelaren paretik 15:30ean irtengo

da. Bidaia 5 euro balioko du, bazkariak 15, eta sarrerak 15. Zumaia Hotelean eta

Metro tabernan daude txartelak salgai. Goazen Jon animatzera!!



Sekula neska baten laztanik jaso gabeko mutilzaharraren paperean abestu zuen Jon Maiak.

Neska ederra hurbildu zaio, eta ukitu orduko diru eskean hasi.
(bertso bakarra izan arren, bi zutabetan ipini dugu)

**Afari ikaragarri
askotan ohi det gozatu
musean pixka bat egin
ta lagunekin jokatu
urteak hala joan dira
azkenean mutilzahartu
saiatu izanagatik
bizitza ez zait aldatu (bis)**

**bakarrrik hilko ote naiz
hori al da nire patu
etxean irrati zahar bat
ta sukaldean bi katu
neska hurbildu zait eta
esku batez ferekatu
behar desberdinak baina
beharrak elkartu gaitu (bis).**



AUTO-ESKOLA



ZUMAI A

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea



Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089

Urte beltza

Marea beltzik ez omen zegoen. Ez zela hainbestera zioten. Prestigek isurtzen zuen galipota hari muturren antzekoa zela esan zuen norbaitek. Eskerrak!! Gure herriko hondartzak eta haitzak ederki zikindu zituen galipota zikinak. Urtebe da lehen arrastoak iritsi zitzaizkigunetik. Baina lasai, pozik egon beharko genuke, azkenean denoi pixkat tokatu zaigu eta.



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

D'Ana
Despachindegia

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224



"Komunikabideetan Zumaia entzun orduko, belarriak tente jartzen zaizkigu"

Bi dira. Bat bitan edo bi batean. Ixiar Eizagirre eta Estitxu Eizagirre. Bi zenbakia magikoa da beraientzat. Bi herri: Hernani eta Zumaia. Bi ofizio: pedagogia eta kazetaritza. Bi afizio: bertsoak eta hitz egitea. Bi dira: bikiak.

Kazetari eta pedagogia lanetan ari diren bi bertsozale amorratu hauen aita zumaiarra da. Badute, hortaz, Zumaiatik zerbait. Estimaten dute gure herria, elkarrizketan konturatuko zareten bezala.

Zer moduz Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa?

Estitxu Eizagirre: Uste baino hobeto. Lehenengo kanporaketa gainditzea ezustekoa izan zen, eta bigarrena pasatzea zer esanik ez. Finalaurrekoan kantatzea izugarria izan zen. Nik sekula egin dudana saiorik garrantzitsuena zen, eta urduri xamar aritu nintzen. Hala ere, txapelketan egindakoaz oso oroimen ona daukat.

Ahizpak nola ikusi du Estitxu txapelketan?

Ixiar Eizagirre: Ondo. Kanporaketetan oso lasai ikusi nuen. Gero, finalaurrekoan nahiko zurbil zegoen, baina ondo ikusi dut. Hori bai, entzule bezala oso urduri egon dena ni izan naiz.

Txapelketa azken txanpan dago. Zein izango dira aurreneko hirurak?

Estitxu: Jon Maia, Aitor Mendiluze eta Maialen Lujanbio. Ordena ez dakit, baina hirurak izango dira punta-puntan.

Ixiar: Niretzat Maialen, Irazu eta Jon Maia.

Orain gutxi izan dira mundu mailako ahozko inprobisatzaileen jardunaldiak, hemen Euskal Herrian. Zer moduzko esperientzia?

Estitxu: Bi gauza nabarmenduko nituzke. Batetik, munduko ahozko inprobisatzaile guztiak elkar ezagutzeko oso garrantzitsua izan da. Eta bestetik, denek esan dute guztietan antolatuen eta garatuena bertsolaritza dela. Guztiak ados daude, hemengoak eta kanpokoak, bertsolaritzak bideratu behar duela etorkizunean ahozko inprobisatzaile-

en mugimendua. Alde horretatik, oso bide emankorra irekitzen da bertsolaritzaren ikuspegitik.

Bertsolaritza zer da zuentzat? Zer eskaini dizue?

Ixiar: Inguru bat eskaintzen digu. Afizio bera dugun lagun taldea biltzeko aukera emateaz gain, ilusioak eta proiektuak banatzeko parada ematen digu. Asteko ordu gehienak elkarrekin igarotzen ditugu.

Estitxu: Gure bigarren familia eta koadrila da. Gurasoekin baino denbora gehiago egoten gara bertsotako lagunekin. Txapelketa garaian, egunero elkartzen gara, eta planak eta bertso afariak, adibidez, denon artean antolatzen ditugu. Ilusioak eta proiektuak partekatzen ditugu. Bertsolari batentzat, akaso, beste zerbait izango da bertsolaritza, baina bertsolari sentitzen ez garenontzat horixe da.

Bertsolariak ez zaretela diozue. Zer da, orduan, bertsolari izatea?

Ixiar: Hor dezenteko sesioak izaten ditugu. Bertsoa botatzen dakien edonor ez da bertsolaria. Herri mailan eta

"Bertsolaritzak
bideratu behar
du etorkizunean
ahozko
inprobisatzaileen
mugimendua"



gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334



izan daiteke, baina hortik kanpo jendeak ez du bertsolari bezala ezagutzen. Konparazio baterako, hondartzan futbolearen aritzen dena herri mailan futbolaria izango da, baina herritik kanpo ez dute horrela ikusiko. Bertsolari izatea guk horrela ikusten dugu.

Estitxu: Norberak pentsa dezake bertsolaria dela, baina kanpoko jendeak bertsolari bezala ezagutu behar du bertsolari izateko. Adibidez, Jon Maia kanpora doanean bertsolari bezala ezagutzen dute. Hori da bertsolari izatea.

Hernani aldean, sekulako koadrila biltzen zarete bertsoen jiran. Zein da arrakasta horren sekretua?

Ixiar: Talde lana da sekretua. Hasieretan ikastoletara jo zuten umeak biltzeko, eta taldea osatu zen. Harrezkero, talde bakoitzak bere dinamika izan du. Taldeak berak sortu ditu irakasleak. Irakaslerik ez zen momentuan taldeak berak egin du aurrera. Orain umeei filosofia hori erakusten ari gara, talde egituraren dinamikarena.

Estitxu: 11 eta 16 urte bitarteko taldeari irakasten diegu bertsoetan. Gu ez gaudenetan beraiek dira klasea aurrera eramaten dutenak. Eta hori da belaunaldiz belaunaldi

irakatsi behar dieguna.

Ixiar: Talde egituraren beste helburuetako bat da bertsolari gazte hori 15 urterekin ez nazkatzea. Bertsolari izateko nahiko temosoia izan behar da. Horrez gain, inguruan taldea badaukazu errazagoa izango zaizu goi mailarako pausoa egitea. Beste kontu bat da goi mailan noraino iritsiko zaren, baina, gogoia izanez gero, eta inguruan taldea baduzu errazagoa da. Alde horretatik, Hernanin guk sekulako mauka daukagu.

Estitxu: Pentsa, gure taldean biltzen gara Irazu, Maialen, Mendiluze, Zelaia, eta beste zenbait. Irakaslerik ez dago. Elkarrengandik ikasten dugu. Elkarri zuzenketak egiten, eta aholkuak ematen aritzen gara, eta hori oso garrantzitsua da.

Zumaian ere bada bertso eskola, eta zuek biak gure herrian egin zenuten zuen aurreneko saioetako bat. Oker ez bagaude, gainera, baserritarrez jantzita...

Estitxu: Egia da bai. Hura izan zen gure lehenbiziko saioetako bat. Tabernaz taberna ibili ginen, eta oso polita izan zen. Herri honek aukera dezente eman dizkigu, ez dakidana da merezi duen bezala erantzun diogun.

“Norbaitek irakurtzen dituen gutxieneko ziurtasun bat eman digu saria irabazteak”

Rikardo Arregi kazetaritza saria irabaztea zer izan da zuentzat

Estitxu: Etorri behar zuen momentuan etorri zen. Urte gogorra izan da aurtengoa. Pello Zubiria gure zuzendaria eraman zuten, Egunkaria itxi...badakit denon arrisku maila ez dela bera, baina ezegonkortasun egoera batean zaude. Gainera, hiru urte daramagu elkarrizketak egiten, eta beti dituzu zalantza hauek: norbaiti gustatuko al zaizkio? Irakurriko al dituzte? Onak al dira? Sariak, alde horretatik ziurtasuna eman digu.

Ixiar: Norbaitek irakurtzen dituen gutxieneko ziurtasun bat eman digu saria irabazteak.

Zenbat elkarrizketa egin dituzue?

Estitxu: Urtean 50en bat. Laugarren urtea hastear gaude, ba... 150 edo.

Elkarrizketak prestatzeko zein teknika erabiltzen dituzue?

Estitxu: Zuk gurekin egin duzun gauza bera. Elkarrizketatuen ahalik eta datu gehien bildu, espiatu, Interneten bilaketa handia egin, libururen bat idatzi badute irakurri. Inguruko lagunei ere galdetzen diegu, halakori zer galdetuko lioketen. Nahiz eta ez ezagutu, horrek asko laguntzen digu. Elkarrizketatuen ezagunen batzuekin ere harremanetan jartzen gara datuak biltzeko.

Sari garrantzitsua, dudarik gabe Rikardo Arregirena. Baina Zumaia aldean sari goxoagoren bat ere irabazita zaudete...

Ixiar: Baleiken izan zen. Gogoan dut aitak bidali zuela erantzuna gure izenean. Asmatu, eta pastelarekin etxera gustura asko.

Telebistan ere ibiliak zarete, Sorginen Laratza saioan. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Ixiar: Onetik eta txarretik izan zuen. Nahiz eta probatu ondoren aurrera segi ez, horrek ez du esan nahi esperien-

tzia txarra izan zenik. Konturatu ginen medio horretarako ez genuela balio, txarrak ginela. Telebista mundua ezagutzeko balio izan zigun, eta egia esateko kolpe handi samarra hartu genuen, batez ere barruko planteamenduengatik. Estitxu: Planteamenduarekin ados egon ez arren, gidoiak egiten, behintzat, laga ziguten. Gure saltsak egiten uzten ziguten, eta alde horretatik nahiko ondo. Bestalde, pertsona batek lotsa guztiak galtzen ditu telebistan. Gainera, saioa eman eta hurrengo egunean kaleko jendeak zuri telebistan esanarazitako guztiak gogoratzen dizkizu. Kaleko jendearentzat telebistan azaltzen duzun nortasuna da zurea, eta hori nahiko eskizofrenikoa da. Telebistaren beste alderdi txarretako bat da, zure eguneroko bizitzan dituzun mila arazoak alde batera utzi eta beti aurpegi berarekin azaldu behar zarela.

Telebista ezagututa, planteamenduaz gain, zer da aldatu beharko litzatekeena?

Ixiar: Gu adin txarrean sartu ginen telebistan. Rebelde samarrak ginen, eta gauzak argi eta garbi genituela pentsatzen genuen. Gu genbiltzan zuzen, eta gainontzekoak



IXIAR ETA ESTITXU EIZAGIRRE ahizpa bizkiek 24 urte beteko dituzte laster. Ixiarrek Pedagogia ikasi zuen, eta Estitxuk Kazetaritza. 11 urte zituztenetik bertso eskolan sartuta dabilta, eta ez dute ateratzeko intentziorik. Parrandazaleak dira, eta elkarrizketan aritzea ofizioa eta afizioa dutela diote.

“Kaleko jendearentzat
telebistan azaltzen duzun
nortasuna da zurea, eta hori
nahiko eskizofrenikoa da”

oker. Hori horrela izanda, telebistan bada bere lanpostua gordetzeagatik gauzak aldatzeko eskatu ere egiten ez duena, nahiz eta konturatu beste era batean egin beharko litzatekeela. Barruko zentsuraz gain, norbere autozentsura hori ere badago.

Estitxu: Beraiek agintzen zuten gauzak nola egin. Adibidez, Inñurrategi anaiei guk elkarriketa era batean egingo genien, baina telebistakoek zioten ezetz, jendeari ez zitziola gustatuko. Orduan esaten duzu: herri berdinean bizi al gara?

Ixiar: Zentsura politikoaz aparte, bestelakoa ere badago. Hemengo bizimodua telebistara eraman beharrean, kanpotik kopiatzen dute. Eta hori da ona, eta kitto!! Ez dakit nongo bazterrean biluzte batek arrakasta badu, hemen ere probatu egiten da, pentsatu gabe agian hemengo jendeari beste zerbaitek gustatzen zaiola.

Estitxu: Anjel Alkainek sekulako arrakasta du. Zergatik? Hemengo umorea darabilelako, bera den bezalakoa agertzen delako.

Baleikeko kolaboratzaileak ere bazarete. Trinidadia sailean egur asko jasotzen al duzue? Edo eman gehiago?

Ixiar: Ez, gurekin txintxoak dira.

Estitxu: Zalantza genuen Zumaian bizi ez garenez, nola erantzungo ote genuen. Baina guretzat oso ariketa politta da. Besteak idatzitakoari erantzutea ederra da.

Lan aldetik etorkizuna nola ikusten duzue? Argian segitzeko intentziorik bai, edo beste proiekturen bat daukazue buruan?

Ixiar: Orain Hik hasi irakaskuntzako aldizkarian hasi naiz. Horrek nik ikasitako Pedagogia karrerarekin lotzeko aukera ematen dit, eta gustura nago. Argian ere kontentu nago, baina beti pentsatu izan dut nire eremuan ez nagoela. Orain Hik hasi aldizkariak biak uztartzeko aukera ematen dit, Pedagogia eta Kazetaritza, eta gustura nago. Bestalde, kobratutako lanetatik aparte, gogoia daukat Bertsozale Elkartean lanean aritzeko, eta badakit egunen batean hor sartuko naizela, kobratzen edo kobratu gabe. Bertso eskolan jarraitzeko gogoia ere badut.

Estitxu: Nik ere Argian segituko dut, baina pentsatzen ari gara hiru urtez elkarriketak egiten aritu eta gero, garaia dela beste sailen batean lan egiteko, eta elkarriketak besteren batek egitea. Bestalde, Ixiarri bezala, niri ere gustatuko litzaidake Bertsozale Elkartean aritzea, baita bertso eskolen munduan jarraitzea ere.



“Bertso onenaren saria nik irabazi nuen, baina Estitxuren izenean”

Bizkiak zaretela eta, sekula ez al duzue elkarrengandik urruti izateko gogorik sentitu?

Estitxu: Karrera aukeratzera ezberdinak ikastea erabaki genuen. Lehentasunak antzekoak genituen, Ixiarrek bat aukeratu zuen, eta nik beste bat. Bera Donostian gelditu zen Pedagogia ikasten, eta ni Bilbora joan nintzen Kazetaritza ikastera. Asteazkenean elkar ikusi ez arren, telefonoz egunero hitz egiten genuen, eta asteburu etxeko gelan sartu, eta elkarri kontuak esaten egoten ginen. Dagoeneko etsita gaude. Hala ere, orain ez gara elkarrekin bizi.

Dena banatzen al duzue?

Estitxu: Saiatzen gara.

Mutilak ere bai?

Estitxu: Plana egin genuen, baina ez zitzaigun ondo atera.

Ondo atera zitzaizuen Lizardi sarian egin zenutena izan zen. Kontatu zer arraio egin zenuten.

Ixiar: Biok heldu ginen finalera, eta erabaki genuen nik Estitxuren izenean kantatzea, eta berak nire izenean. Gure asmoa zen, kartzelako saioan kanpora irten, erropa denak aldatu eta nik nire izenean eta berak bere izenean abestea. Gaizki atera zitzaigun, Estitxu izan zelako kartzelan aurrea kantatzen. Hala ere, primeran pasa genuen. Bertso onenaren saria nik irabazi nuen, baina Estitxuren izenean. Orduan, saria banatzerakoan Estitxu esan zuten, eta bera jaiki zen. Ederra aurpegia!!

Estitxu: Kuriosoa izan zen sari horrena. Hurrengo egunean jende guztiak ni zoriontzen ninduen. Aitak esaten dit bizitza guztian egin dudak gauzarik onena ahizpak egin didala.

Inor ez al zen konturatu zuen amarruaz?

Ixiar: Bertso eskolako batzuk bai, baina epaileak ez ziren konturatu.

Bizkiak izatearen bentajak. Bestalde, hernaniarrak izan arren aita zumaia duzue. Zenbatean zarete zumaia? Beraneanteak adina bai?

Ixiar: Hemen ibiltzen diren eibartarrak adina bagara, behintzat. Familiaren zati bat hemen daukagu, eta egun handietan etortzen gara. Umetan ere uda Zumaian pasatzen genuen.

Estitxu: Erdiz erdi daukagu. Asteburu hona etortzen ginen, eta Hernanin erdi zumaia deitzen ziguten, eta hemen eibartarrak. Aspaldian gure kaxa ibiltzen gara, eta asteburu ez gara etortzen. Baina Zumaia berezia da guretzat. Komunikabideetan Zumaia entzun orduko, belarriak tente jartzen zaizkigu.

Uda eta hondartza aipatuta, ezagunak dira zuek hondartzan egindako futbol saioak...

Ixiar: Hau lotsa zaharra!! Nondik atera duzu hori? Oso umetan izango zen, ez dakigu eta futboleak ibiltzen.

Estitxu: Osaba denak elkartutakoan aritzen ginen futboleak, baina zahar samarrak zeuden, eta norbaitek min hartu arte han ibiltzen ginen gu.

KATE MOTZEAN

Gaurko bertsolari bat

Estitxu: Jon Sarasua, baina ez da gaurkoa.

Ixiar: Maialen.

Bertsolari klasiko bat

Estitxu: Lazkao Txiki

Ixiar: Gaurkoa ere bada, baina Joxe Agirre.

Liburu bat:

Estitxu: "Dejame que te cuente". Psikologo batek idatzitako ipuinak dira.

Ixiar: "Obabakoak"

Pelikula bat:

Estitxu: "El piano"

Ixiar: "Amelie"

Disko bat

Estitxu: Joseba Tapiaren gerrako kantuenak, "Agur Intxorta maite"

Ixiar: Sabinarenak gustuko ditut.

Herri bat

Estitxu: Arano

Ixiar: Hernani

Estitxu edo Ixiar

Estitxu: Hau Ixiar eta ni Estitxu

Ixiar: Hori da!!

Erlaxatzeko bi bide ezberdin



Zenbat aldiz entzun ote dugu gaur egungo bizitzeko moduarekin ezin dela lasaitasunean eta pozik bizi. Hala ere, hori lortzeko teknikak badira, esaterako, kontrol mentala eta Tai Chi Chuan.

FORONDA KULTUR Etxeak hainbat ikastaro antolatu ditu udazken honetan. Ikastaro hauen artean batzuk Kutxaren laguntzarekin ematen dira, besteak berriz Udaletxeak antolatutakoak dira. Aurten honako ikastaro hauek daude martxan: Photoshop, Vainica, Punto smock eta nido de abeja, Sukaldaritza, Perkusio Afrika-rra, Pintura tailerra, Kontrol Mentala eta Tai Chi Chuan. Ikastaro gehienak maiatza bitartean emango dira, baina

beste batzuk dagoeneko amaitzeaz daude.

Guk hurrengo lerroetan izen bitxi-ena duten biak izango ditugu izpide, Kontrol Mentala eta Tai Chi Chuan. Horretarako Arantxa eta Violarekin elkartu gara beraien ikastaroen berri eman diezaguten.

Kontrol Mentala urrian hasitako ikastaroa dugu, eta hurrengo astean emango diote amaiera. Urte batzuk badaramatza martxan ikastaro honek. Arantxak esan digunez, 20 pertsona

hasi ziren ikastaroan eta horietatik 11k jarraitu dute ikastaro osoan zehar. Ikastaroak aurrera jarraitzen duen heinean, beti jaitsi egiten da ikasle kopurua. Adin guztietako jendea dago klasean, 20 urtetik hasi eta 65era bitartekoa. Jendea arrazoi askorengatik joaten da bertara, batzuk Kontrol Mentala horren izen arraroa entzunda, kuriositate hutsez hurbiltzen dira, baina asko erlaxatzen ikasteko joaten dira.

Ikastaroan erlaxazioa da garrantzi-

tsuena, eta norberak bere bizitzaren ardura hartzen ikasteko ariketak egiten dira. Teknika ezberdinak ikasten dituzte jakiteko ia benetan nahi duguna egiten dugun: lo egiteko teknikak, ikasteko, arazoak konpontzeko, min suabeak, buruko minak eta odoljario txikiak mozteko teknikak. Gehienbat osasuna hobetzeko teknikak ikasten dituzte bertan. Gauean lo ondo egin, eta hurrengo egunean datorkiguna lasai hartzeko teknikak. Erlaxazioa adin guztientzako da ona, eta ondorioz teknika hauek guztiok erabiltzeko modukoak dira. Gazteentzako jakiteko ze bide hartu behar duten bizitzan, eta zaharrentzako jakiteko aurretik daukaten bizitzan ondo bizi behar dutela.

Ikastaroan erlaxazioa da garrantzitsuena, eta norberak bere bizitzaren ardura hartzen ikasteko ariketak egiten dira.

Klaseetan jarraitzen duten ikasleak erabat erlaxatzea lortzen dute. Batzuk harritu egiten dira beraien gorputza nola erlaxatzen den igartzen dutenean. Aparkatzerakoan leku librea errazago ikusteko teknika bat ere badago, eta jendea erabat harritzen da hala gertatzen dela nabaritzen duenean. Ikastaroa amaitzen dutenek, bi edo hiru aldiz errepikatu egiten dute. Izan ere, ikastaroak hilabeteko iraupena duenez, motz geratzen da benetan teknikak landu nahi dituztenentzat. Behin pare bat ikastaro burututa, askok beren etxeetan lantzen dituzte ikasitako teknikak.

Arantxak teknika hauek zein onak diren erakutsi nahi die bertara hurbiltzen direnei. Berak dioenez teknika hauek pozik bizitzen laguntzen digute, eta ikasleak pozik bizitzea lortu nahi du.

Tai Chi Chuan Kutzak antolatutako ikastaroa dugu. Lehendabiziko urtez ari dira Zumaian ikastaro hau ematen. Viola da bertako irakaslea. Ikastaro honetan astelehenero 18 ikasle biltzen dira. Guztiak 28 urtetik 60ra bitartekoak dira, gehienak emakumezkoak. Ikasleak arrazoi askorengatik hurbiltzen dira, batzuk mugitu nahi dutelako, besteak estresa kanporatu nahi dutelako. Badaude lagunak gomendatu dietelako etortzen direnak ere. Violak dioenez ikastaro guztietan egoten dira emakume gehiago, nahiz eta, maila igotzen doan heinean gizonezkoen kopurua handiagoa den. Profesionalen artean ere gizonezko gehiago topatzen dira.

Azken 20 urteotan Tai Chi Chuan mendealdeko lurraldeetan entzute handia lortzen ari da. Tai Chi termino-

aren itzulpena egitea ez da batere erraza izaten, eta askok "lo mas supremo" moduan definitu izan dute. Chuan hitzak ukabilkada esan nahi du, eta beraz borrokarako artea bezala ulertzen da. Tai Chi-a Ying Yang sinboloaren bitartez adierazten da.

Askok eta askok beren etxeetan lantzen dituzte ikasitako teknikak.

Tai Chi Chuan antzinako Txinatik datorkigun artea da. Bere oinarritzko nozioak Tao edo bidea izeneko filosofiatik datoz. Tao, biolentzia eta tentsioa alde batera utzi eta lasaitasunez eta era maitekor batean bizitzen erakusten duen bidea da. Antzinako txinatarrek gerran borrokatzeko teknika eta argitasun bide bezala erabiltzen zuten.





Tai Chi Chuanek bost elementu biltzen ditu bere baitan: forma, arte martziala, Ch'i Kung eta ariketak. Meditazioa beste laurak koordinatzeko tresna da. Klaseetan gehienbat forma lantzen dute.

Violak bere klaseetan lehenik eta behin ikasleei kanpoan uzten dutenarekin erabat deskonektatzen laguntzen die. Norbera bere buruarekin konektatzen. Izan ere, ikasleak kanpoko zerbaitekin pentsatzen badaude zaila egiten da Tai Chi Chuan egitea. Horretarako musika lasaia eta ariketa sinple eta era berean konplexuak egiten hasten dira. Ondoren, teinkaketen bidez artikulazioak lantzen hasten dira. Norberaren zail-

Tai Chi Chuanek bost elementu biltzen ditu bere baitan: forma, arte martziala, Ch'i Kung eta ariketak. Meditazioak beste laurak koordinatzen ditu.

tasunekin konektatzeko ariketak ere egiten dituzte. Horren bidez, norberak zailtasun batekin topo egiten duenean sortarazten dion tentsio hori kanporatzen saiatzen dira. Bikoteka ere egiten dute

lan, Tai Chi Chuan praktikatzerako orduan kontaktua oso garrantzitsua baita. Violak dioenez korrika egiteko ahalmena guztiok dugun doai natural bat da, eta gorputza askatzen laguntzen du. Bost edo hamar minutuz korrika egitea ere ona izaten da, baina, leku faltagatik ezin izaten dute atal hori egin. Meditazioa ere Tai Chi Chuan en parte bat den arren ikastaro honetan ez dute lantzen.

Violak dioenez, "Tai Chi Chuan ulertzeko modurik onena praktikatzea da. Nabaritzeko zer den. Hobeto sentitzeko balio dezake, baina ezin daiteke denentzako egokia izan".

VIOLA EGETER:

"Gizakiaren sufrimendua handia da, eta bere arazoak konpontzeko irtenbideak bilatzen ditu"

Viola Tai Chi Chuaneko irakaslea da Gipuzkoako hainbat herritan. Alemaniarra da, eta hamar urte daramatza Euskal Herrian.

Zenbat urte daramatzazu Tai Chi Chuaneko klaseak ematen?

15 edo 20 bat urte.

Urte horietan zehar klaseak emateko modua aldatu da?

Bai, erabat. Egunero jaikitzen zarenean ez zara berdin sentitzen eta horrek klasea modu batera edo bestera ematea dakar. Gertaera batek edo besteak klasea emateko modua aldatzen du.

Ikasleak klasera lehendabizikoz etorri zirenean, bazekiten zer aurkituko zuten?

Ez, inoiz ez dute jakiten zer den. Estresatutako jende asko etortzen da erlaxatu nahi dutelako. Beste batzuk mugitzeko beharra sentitzen dute eta horregatik etortzen dira. Mugimendua eta erlaxazioa konbinatu nahi izaten dituzte.

Klasean 30 urtetik gorako jendea dago. Tai Chi Chuan adin guztietan praktikatzeko egokia da?

Adin bakoitzean atal ezberdinak lantzen dira. Gazteenekin arte martziala gehiago lantzen da. Klaseak dinamikoagoak izaten dira. Adina aurrera doan heinean ariketa suabeagoak egiten dira. Arte



martziala alde batera uzten da.

Alemanian ere ibilia zara klaseak ematen. Bada alderik bien artean?

Alemanian emakumeen tailer batean ematen nituen klaseak. Han jendeak gehiago daki honen inguruan. Parkeetan ere ikusten da jendea praktikatzen. Hemen baino zabaldago dago.

Modan dagoen zerbait da?

Bai. Gizakiaren sufrimendua handia da eta bere arazoak konpontzeko irteerak bilatzen ditu. Badirudi irtenbide hauek beste kulturatan topatzen dituela.

Askotan pentsatzen dugu, arte martziala edo meditatzeko modu bat dela. Hala da?

Arte martziala Tai Chi Chuanen alde bat da. Baina ez da borroka gogor bat. Ez diete elkarri minik ematen. Bien artean dagoen errespetua ikaragarria da. Meditazioa ere beste parte bat da. Niretzako Tai Chi Chuan bide espiritual bat da.

Zein da Tai Chi Chuan praktikatzen duenaren perfila? Bere burua ezagutzen duen pertsona da. Bere gorputza, adimena eta sentimendua lotzea ditu helburu. Norberaren ezagutza handiagotzen du. Erlaxatzeko gaitasuna izan behar du. Pertsona urduri batek ezin du Tai Chi Chuan egin.

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetaarako departamentu

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

ALTZARIAK OSTOLAZA AROEZTEGIA



Mota guztietako altzariak eta aroeztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

GALDERA HONI ERANTZUN DIOZUE:

Ibarretxeren plana aurrera aterako al da?

Duela urtebete Ibarretxek planaren berri eman zuenean poztu egin nintzen. Zerbaiten beharra ikusten nuen, blokeo egoeratik irtetzeko. Egia esan ez dut osorik irakurri, soilik prentsan azaldu diren laburpenak gainbegiratu ditut. Ezin ba, gauza handirik esan. Garbi dagoena da, proposamen bat dela, zuzena edo okerra, baina proposamen bat. Eta gauden egoeran egonda, bada zerbait.

I aki

Uaintxe naskauta gabe politiko alu habekin. Majo kobrau, ta hobeto bizi. Hoixe eiten dute, besteikan ez!! Danak dia igualak, danak. Ikusi zenbat jende ai dan sufritzen, ta halare lasai. Jun antzarrak perratzea, zuek gabe hobeto moldauko gea-ta!!

Patxiku

Plana aurkeztia-ta oso ondo dao, baina hori aurea emateko garaietan, ikusita faxista espaiñolak eozer eiteko kapaz diala, ez dakit PNVk ez dun galtzetan kaka eingo beste askotan bezela.

Anjel

Ibarretxe plana gora, Ibarretxe plana behera. Besterik ez dagoela ematen du, eta euskal presoan egoera negargarria zer? Horiek ez al dute eskubiderik? Asko entzuten diegu politikoei giza eskubideen alde daudela, baina noren giza eskubideez ari dira? Presoen eta euren senideenak ondo ahaztuta dituzte.

Joxepa

Abertzale guztiok batu beharko genuke aurrena. Gero gerokoak. Lizarra Garaziko garaietara bueltatzea litzateke egokiena, baina orduko akatsak errepikatu gabe. Horretarako ezinbestekoa ikusten dut ETAk su-etena ematea, abertzaleon nahiari kalte besterik ez diolako egiten. ETAk egiten dituen astakeriak ikusita, askotan pentsatzen dut hor agintzen dutenak ez ote diren espaiñolak izango.

Gora gu !!

Ibarretxek planak gauza bat garbi uzteko baliyo izan du: espaiñolak oso demokratikoki diala!! Earra elementuak!!

Geyenak penetan daude Frankok indar geyena zun garaietan bizi ez izanaz. Plana aurea ez ateatzeko, Iturgaitz horrek botoi asko zapaldu berko ditu (uaindik ez badue Parlamentutik bialdu, noski!!)

Euskaldun bat

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719



SIWA
Belardenda

Besadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



TALAI

INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1

HAUXE DA HILABETE HONETAKO GALDERA:

- Munduko errepide garestiena ez bada, ez da urruti ibiliko.
- Konpondu eta berriz ere obrak. Beti dabilta horrela.
- Orain tunel ikusgarria egiten ari dira.
- Betirako konponbiderik ez daukala dirudi.

Noiz edo noiz konponduko al dute Zumaia eta Getaria arteko errepidea?

Erantzunak helbide honetara bidali: baleike@topagunea.com

Erantzunak bidaltzen dituzuenon artean BERRIA EGUNKARIAREN 5 AGENDA zozketatuko ditugu. Bidali erantzunak!!



ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 0 34 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

TXINGURRI
Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoa.
Balorazioak

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
 - Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
 - Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak
- P. Etkezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

gidatzeko baimen guztiak



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

Tapaia
Zumaia

Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 **943 860151**

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505

Baltasar Etxabe (1558-1623)

OIKIAN JAIO zen 1558an. Francisco de Zumaia pintorearen alabarekin, Isabel de Ibiarekin ezkondu zen 1582an.

Etxabe bere aitaginarrebak kontratatu zuen 1590ean, Puebla de los Angeleseko katedral zaharrerako bi erretaula egiteko: San Migeli eskainitakoa eta erretaula nagusia.

Margotu ere egin zuen. 1592an dominikoen tzat bi lan egin zituen: Mexiko Hiriko komentuko Rosarioko Ama Birjina, eta Santo Domingoren irudia Txiapaseko komenturako.

Mexikon, batez ere, erretaulak egin zituen. Ezagunenak aipatzearen: Xochimilco-koa 1605ean; Tlatelolco-koa 1609an; eta Jesus Maria komentuko erretaula nagusia 1620an.

Liburu ezagun bat ere argitaratu zuen Baltasar Etxabek. 1607an izan zen, eta izenburua luze samarra du: "Discurso de la antigüedad de la lengua cantabro vascongada". Euskararen jatorria aztertu zuen artista oikiarrak. Hainbeste lan egin eta gero, Mexiko Hirian bertan hil zen 1623an

Lazkao-txiki Zumaian

LAZKAO-TXIKI bertsolari artistak askotan kantatu zuen Zumaian ere, Euskal Herriko beste leku gehiengatik bezala. Bai herrian bertan, eta baita Artadin nahiz Oikian ere. Zenbat bertso eta txistez gozatu ote gintuen bere bizitza osoan! Baina lazkaotarrak umoreaz gain, bazekien sentimenduen ur sakonetan igeri egiten ere. 1987ko santelmoetako jaialdian gai hauxe jarri zitzaion goierritarrari:

"Oinazea eta minari bi edo hiru bertso kantatu behar dizkiozu, Joxe Migel"



Zumaia
Bertso Eskola

Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago

-1-

*Mina zer degun oso zaila da
bertsoetan esatea
triste bizi dan norbait badago
oinaze minez betea
beretzat ere naigabe asko
albokoentzat kaltea
ta minez bizi diran haiekin
Jauna, erruki zaitea*

-2-

*Minez dagonak aztutzen ditu
adiskide ta lagunak
minarentzako txarrak baitira
arratsak eta egunak
inoiz neuri're emanak ditu
halako estuasunak
minaren berri ez du emango
inoiz probatu ez dunak*

-3-

*Hiru bertsotan eman nai ditut
Sardina zarren berriak
mami askorik ez dute
eta begiak gorriak
barrena motel dagoenean
ditugu bizigarriak
sagardo ona aukeran bada
kentzen dira egarriak*

H o r t z k l i n i k a

Mozès Hiriart eta SOULIER
Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia
- * Endodontzia
- * Implantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hortz estetika

Implantologia: teknika berrienei esker, implanteak jar ditzakegu, nahiz hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUZ • tfnoa: 943-130278

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Normalizazioa gora, normalizazioa behera

J OAN DEN hilean Josefran Ispizuak NORMALIZAZIOA aitatu zuen, maiuskulaz gainera, Baleikeko bere idatzian. Zenbat aldiz entzun eta irakurri ote dugu hitz hau? Euskararen normalizazioa lortu behar dela, legeak egin (eta aplikatu) behar direla euskararen egoera normalizatzeko, euskara normaldu arte gure hizkuntza hiltzeko arriskuan dagoela... Baina, zer da ba euskara normala izatea? Ez al da ba normala gure hizkuntza? Ematen du ezetz: imajinatu dena delako arrazoi batengatik (lanagatik, norbaitenganako maitasun sutsu eta itsuagatik...) atzerrira joan behar duzuela bizitzera, demagun, Parisera. Frantsesa? Arrastorik ere ez (mon amour, eta juxtu-juxtu). Baina zein da kontua? Ba iritsi eta berehala frantsesa ikasi beharko duzuela, bestela nola arraio egin erosketak? Eta lanekoekin nola hitz egin?


Ibon
Manterola

Zatozte orain Paristik (bai, gure kantuko artistak bezala) gure herrira, edo nahiago baduzue, gure Herrira. Iru-ditzen al zaizue Parisen frantsesa behar den bezala hemen euskara behar dela? Erosketak egiteko eta lana egiteko? Zergatik eta zertarako behar da hemen euskara jakitea? Parisen frantsesa normalizatuta dago. Eta hemen euskara? Legeak behar al dira hemen euskaraz egiteko? Legeak, nahi dituzuen guztiak. Baina Parisen frantsesa normal-normala da bertakoek frantsesez egiten dutelako, eta beste arrazoi askoren artean, seguruenik ez daukatelako batere konplexurik frantsesez egiteko. Eta gure herrian eta Herrian? Konplexuak? Erantzuna: Josefranen urriko artikulua. Astindu norbere usteak eta jarrerak eta normalizatu gaitezen!

Dietetika Estresa

E STRES HITZA "stringere" grekotik dator, eta tentsioa esan nahi du. Estres maila bat beharrezkoa da gorputza bizi-baldintzetara egokitzeko. Hori estres normala litzateke; hau da, kanpo-baldintzen aurrean gorputzak martxan jartzen dituen sistemen aktibazioa. Gorputzak baldintza estresore hauen aurrean(gaixotasunak, lana, faktore psikologikoak, nekea...) erresistentzia egiteko ohitura hartzen badu, neke fasera pasako da, sintomatologia guztiarekin: urduritasuna, buruko mina, lo egin ezina, muskuloetan tentsio eta mina, antsiedadea, neke fisiko eta mentala...Guzti honek, estres maila gehiago igoko du.

Garrantzitsua da norbere buruari begiratzeari, estresa onartzea, zerk eragiten digun ulertzeari, eta ahal den heinean irtenbidea bilatzea. Ezinbestekoa da dieta egoki eta osasungarria: kafea, alkoholadun edariak, azukrea, gatza, haragia eta esnekiak kendu, eta zekale integral, legunbre eta fruitu eta barazki frexkoak jan. Lagungarri izango zaizkigu zenbait sendabelar eta beste hainbat osagarri natural:B taldeko bitaminak, C bitamina, kaltzioa, kromoa eta zinka. Sendabelar ego-kienak "adaptojenok" dira: ez dira lasaigarriak, eta gorputzari baldintza estresoreak gainditzien lagunduko diote:ginseng(3 motakoak daude, jakituriaz eta kontuz erabiltzekoak dira, zenbait pertsonari kalte handiak egin dakizkiokelako), rodiola, ashwaghandia(landare hindua), eskisandra eta astragaloa(medikuntza txinarra), regaliza, hiperikoa(antsiolitiko naturala), kamamila eta pasio belarra...

Lasaituko gaituzten teknikak eta kirola lagungarriak izango dira:arnasketa, yoga, tai-chi, meditazioa, masaiak...


IzagaGarcia
Dietista

Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412


Ricardo J. Azcue Yeregui
Abokatu + Aseguruak
Finan Administrazioa

bomin aguirre 4. behe
20.750 zuzena (guzuzkoa)
E-mail: rjazuca@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862748

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Martxel Toledo: "Euskal selekzio ofizialak lortzeko borondate eza eta koherentzia falta dira oztopo handienak"

Urte sasoi honetan, euskal selekzioek lagun arteko partidak jokatzen dituzte. Ofizialtasunik ezean, lagun artekoekin konformatu behar. Une egokia, beraz, ESAIT, Euskal Herriko Selekzioen Aldeko Iritziz Taldeko kide den Martxel Toledorekin hitz egiteko.

Zumaian harapatu dugu, emaztea zumaiaarra izanik sarri etorritzen delako gure herrira. Eguraldi txarra da kanpoan, eta, zoritxarrez, euskal selekzioen gaian ere laino beltzak ugari dira.

Beno Martxel, Gabonak gainean ditugu, eta urtero garai honetan euskal selekzioek partidak jokatzen dituzte. Nola bizi du ESAITek garai hau?

Martxel Toledo: Euskal Selekzioen aldarrikapena egiteko aukera bezala ikusten dugu. Hori bai, noiz arte jarraitu behar dugu horrela, lagun arteko partidak bakarrik jokatzen? Alde horretatik gu nahiko kritikoak gara, gure ustez zerbait gehiago egin beharko litzatekeelako. Baina besterik ez dagoen bitartean, lagun artekoek eutsi behar.

Ez al zaizue iruditzen jendea Gabon garaian jokatutako partidekin bakarrik konformatzeko arriskua dagoela?

Martxel: Egia da jendea ohitu egin dela Gabonetako partidekin, eta horrek konformismora eraman dezakeela gizartea. Aurtengo udan futboleko selekzioak kanpora joateko aukera izan zuen, baina garbi ez dakigun zerbaitegatik aukera hori ez zen gauzatu. Horrelakoek konformismoa mantendu besterik ez dute egiten.


Euskal Selekzioak kanpora ateratzea garrantzitsua da, ezta?

Martxel: Dudarik gabe. Futbolekoek hori lortu nahi dute, urtean bi partida jokatzea, bat etxean eta bestea kanpoan. Bestalde, eskubaloiko nesken selekzioa kanpora joan izan da. Baina gure ustez, kirol federazioek ez dute benetan sinesten zerbait lortu daitekeenik.

ESAITekoek kirol federazioei ausardia falta egotzi izan diezue. Martxel: Bai, horrela da. Beti daude Madrili begira, hark zer esango. Eta garbi dago, Madrilek sekula santa ez duela baimenduko euskal selekzioek txapelketa ofizialetan jokatzea.

Orduan, kirol federazioek eta Eusko Jaurlaritzak zer egin beharko lukete?

Martxel: Ezinbestekoa da nazioarteko federazioekin harreman zuzenak izatea. Ibarretxe plana zabaltzeko-eta, atze-



rrian hainbat bulego zabaltzeko asmoa dute. Hori oso ondo dago. Ba, kirolean ere antzeko zerbait egin beharko lukete. Atzerrian bulegoak ireki, eta hara bidalitako pertsonak nazioarteko kirol federazioekin harremanetan jarri. Futbolekoak, jakin badakigu, ezezkoa emango liokeela ofizialtasunari, baina beste kirol bateko federazioen bati, akaso, ondo etor dakioko euskal selekzioak berak antolatutako txapelketa ofizialetan parte hartzea. Baina horretarako mugitu egin behar da. Ezin da Madril noiz eta nola konbentzitzeko zain egon, eta garai hauetan oraindik gutxiago. Filosofia eta mentalitate kontua da, gure ustez.

Madrilek jartzen dituen oztopoak aipatu dituzu, baina horiek gutxi ez, eta aurtun etxean bertan beste bat sortu da: futboleko Nafarroa selekzioa. ESAITek zer dio?

Martxel: Izorratzeko egin dutela. Egia da, Nafarroako Parlamentuak kirolaren legea onartuta duela, eta eskubidea badaukala bere selekzioak izateko. Baina giroa dagoen bezala egonda, probokazioa irudikatzen zaigu. Bestalde, Euskal Herri zatituaren adierazgarri ere bada: herri bezala bat eginda bageunde, selekzio bakarra legoke. ESAITek bi selekzioen partidak bultzatuko ditu, baina "Bat eta ofiziala" aldarrikapena egiteko.

Euskal Selekzioa izateko gogoia erakutsi du euskal gizarateak, baina hala ere, ofizialtasuna lortzea urruti dago. Zein da ia denok nahi dugun helburu hori lortzeko bidea?

Martxel: Egia da gizarateak behin eta berriz azaldu duela euskal selekzioen aldeko jarrera. Guk egindako inkesta batean emaitzak ikusgarriak izan dira. Baita federazioen aldetik ere. Baina hitzetatik ekintzetara pasatzerakoan dago koska. Gizaratearen borondate hori federazioek, eta batez ere federazioen

gainean dagoen Eusko Jaurlaritzak bideratu behar du.. Baina ez dakigu zenbaterainoko borondatea duten. Ofizialtasuna lortzeko zirrikitu juridikoren bat bilatu beharko genuke, baina horretarako ezinbestekoa da mugitzea. Borondatea izanez gero, lehen aipatu-tako atzerriko bulegoak irekitzea ondo legoke. Guk hortik ikusten dugu bidea.

Euskal Federazioak ESAITen eskuetan baleude gauzak aldatuko al lirateke?

Martxel: Eskerrak ez dauden!! (barre egiten du). Guk nahi duguna horixe da, euskal federazioetan gure jendea sartu. Orain daudenak kirol mundukoak izan arren, pentsaera politiko jakin batekoak dira, eta horiek goiko aginduen zain egoten dira. Gure kontra sekulakoak esan zituen Joxerra Garai da Eusko Jaurlaritzako kirol arduraduna. Ez dugu esaten horiek denak euskal selekzioen alde ez daudenik, baina bai beste mentalitate bat behar dela. Madrilekin apurtu behar da. Ezin gara haien zain egon. Eta apurketa hori egiteko ez daude prest gaur egun federazioetan eta erakundeetan daudenak. Adibidez, iaz Nafarroan izan ziren pilotako munduko txapelketak zirela-eta, guk Euskal Federazioari haxe proposatu genion: "selekzio denak hemen daudenez, txapelketa paraleloa antola dezagun. Komunikabideetan izugarritzko garrantzia eman, eta benetako txapelketa guk antolatuko dela zabalduko dugu". Ezetz erantzun ziguten, ezin zela, etab. 2003an Gasteizen horrelako zerbait antolatzeko asmoa zutela, eta dirua horretarako bideratu behar zela. 2003 ia bukatu da, eta txapelketaren arrastorik ere ez.

"Madrilekin apurtu behar da. Ezin gara haien zain egon"



EUSKAL SELEKZIOAK

Eusko Jaurlaritzak kirolaren legea onartu berri du. Hortik zerbait lortzerik bai?

Martxel: Ez, euskal selekzio ofizialak lortzeko ez du ezertarako balioko. Ibarretxeren planaren inguruan sortutako publizitatearen barruan kokatzen dugu lege hori.

Etorkizunari begira, zein dira ESAITen asmoak?

Martxel: Gure egituretan jende berria sartu, eta 2004an egingo diren federazioetako hauteskundee-tan gure jendea sartzen saiatu. Eta ez badugu lortzen, gutxienez, federazioei bultzada eman aurrerapau-soak emateko.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

Orain arteko lana neurtzen



Herriko kirol talde gehienek udazkenean hasten dituzte denboraldiak. Hasi eta hiru hilabetera, beraingana joan gara zertan diren jakiteko.

Lau kiroletan ari direnen jarduna aztertu dugu: futbolariena, pilotariena, eskubaloilariena eta saskibaloiko jokalariena. Eta kirola izanik, itxura guztietako emaitzak izan dituzte denboraldiaren lehen zatian.

Zumaiako Futbol Taldea: trantsizio urtea

Futboleko arduradunekin hitz eginda, lasai daudela nabaritzen zaie. Aurten zazpi talde ditu lehian Zumaiakok. Emakumezkoen talde nagusia Emakumezkoen Liga deitzen zaion txapelketan ari da, eta oso lan txukuna egiten, gainera. Iaz ere denboraldi bikaina egin zuten, eta horri esker neska koskor ugari gerturatu zaie futboleko jokatzeko asmoarekin. Jende asko zutela ikusita, futbol 8ko txapelketan taldea ateratzea lortu dute, eta oso ondo ari dira.

Gizonezkoei dagokionez, bost talde dira Zumaiako Futbol Taldearen baitan. Talde nagusia 1. Regional mailan

ari da, eta aurtengoa trantsizio urtea dutela esan digute. Iaztik hona jokalaria asko falta zaizkie, eta talde berria egiten ari dira. Horrek denbora behar du, baina, hala ere, pixkanaka konfiantza hartzen ari dira, eta orain sailkapenaren erdialdean dira.

Maila bikainean dabiltzanak gazteak dira. Adin horretako 1.mailan daude, eta aurrena dira sailkapenean. Denboraldi hasieran uste zutena baino maila hobea ari dira ematen, eta orain igotzeko asmoekin daude.

Kadeteek oso talde gaztea dute, eta Ohorezko Mailan hori garesti ordaintzen da. Denboraldi hasieratik dabilta atzealdean, baina adin horretan garrantzitsuenak jokatzeko ikastea denez, klubeko arduradunak lasai daude.

Kadeteen azpian haurrak edo infantilak daude. Hauek ere oso mutil gazteak dituzte taldean, eta helburu nagusia futboleko jokatzeko ikastea bada ere, emaitza onak lortzen ari dira.

Aurten lehenengo aldiz, alebinen taldea ere badago. Haur hauen ardura dutenen helburu bakarra umeei futboleko jokatzeko erakustea da.



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

ZALLA

Taberna - Erretegia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

Pilota: Z.K.E.ren helburua erakustea da

Eskuz, palaz, eta zestaz aritzen dira zumaia pilotariak, eta ez gutxi, gainera. Denera hamasei bikote aurkeztu dituzte aurtengoan. Gehienak zestakoak dira, hamar bikoterekin. Denetik egin dute orain arte Gipuzkoako Txapelketan. Kadeteak finalerako sailkatu dira, eta seniorretako lau bikoteetatik hiruk aukerak dituzte finaletan izateko. Bat ere aukerarik gabe daudenak gazteak dira.

Eskuz sei bikote dira Gipuzkoako Txapelketan lehen direnak: haurren mailan bat; kadeteetan beste bat; eta gazteetan eta seniorretan bina. Nabarmentzekoa da gazte mailako Iribar anai bikiak egiten ari diren lana. Gazteetako 1. mailan dabilta, eta oso lan txukuna egiten, gainera. Hala ere, Zumaia Kirol Elkartearen helburua pilotariak egitea da, pilotan erakustea. Gero, norbaitek goranzko bidea eginez gero, hobeto, baina helburu nagusia ez da hori.

Bukatzeke, palaz bi bikote aritzen dira, biak ere seniorrak. Batek larraz jokatzeko du, eta besteak gomaz. Larraz ari diren Josu Unanuek eta Pello Carballo final erdian sartzeko aukerak dituzte. Gomaz ari diren Iñigo Alkorta eta Joseba Urbietarentzat esperientzia berria da aurtengoa, baina hala ere dotore moldatzen dira.

Zumaia Kirol Taldea: mailari estuasunik gabe eustea

Iaz maila mantentzeko zirenak eta ez zirenak igaro ondoren, aurtengorako helburu bat eta bakarra dute zumaia-reek: mailari estuasunik gabe eustea. Hasi ondo hasi ziren, baina azkenaldian, lesioak tarteko, patal aldia izan dute. Hala ere, sailkapenean eroso daude, larritasunik gabe. Euren atzetik dauden taldeei erraz samar irabazi dietela ikusita, lasaitasuna da nagusi taldean. Badirudi denboraldi hasieran ipinitako helburua beteko dutela. Horretarako, gainera, azken orduko fitxaketa bat egin dute. Bizpahiru urtez jokatu gabe egon den zarautzar bat ekarri dute, eta gustura dira bere lanarekin.

Pulpo Eskubaloia Taldea: sekula baino talde gehiago

Aurtengoan marka guztiak hautsi dituzte eskubaloikoek. Bederatzi dira liga ezberdinetan ari diren taldeak. Gizon-nezkoetan talde nagusia 1. Nazional mailan da, eta ondo

hasi baziren ere, lesio ugari izan dituzte azkenaldian. Horregatik, beherantz egin dute azken partidetan, baina klubeko arduradunak lasai daude. Jokalari guztiak osatuta, badakite taldeak gorantz egingo duela. Bigarren taldea Gipuzkoako 2. mailan dabil, eta aurrea doaz. Helburua igotzea dute.

Euskal Ligan ari diren mutilen gazte mailako eta kadeteen taldeak denboraldi oso desberdinak egiten ari dira. Kadeteak bikain ari dira, eta gorantz begira daude. Gazte mailakoak, berriz, partidarik irabazi gabe dira azken postuan. Bi taldeon helburua mailari eustea da.

Mutilekin bukatzeke, haurren taldea aipatu behar. Lehen aldiz ari dira federatu bezala, eta helburua bakarra da: eskubaloian jokatzeko ikastea.

Emakumezkoetan, talde nagusia Euskadiko Txapelketan ari da, eta maila bikaina ematen, gainera. Mailaz igotzeko asmoa dute.

Euskal Ligan ari dira gazteak eta kadeteak. Iazko denboraldia bukatuta igo ziren maila gogor horretara, eta lehen urtea izanik, esperientzia falta ari dira nabaritzen.

Haurretan ere atera dute nesken taldea. Mutiletan bezala, helburua ikastea da.



Mota
guztietako
altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14

Y
i
N



Y
A
N
G

GAZTEEN ERAOKA

dekorazioa

ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

MOILA BETE ITSASONTZI

Beste garai batzuk ziren haiek. Moila itsasontziz bete-
ta egoten zen, eta zumaia asko hortik bizi ziren. Gaur
egun egoera zeharo aldatu da, eta Zumaia portuan
oso itsasontzi gutxi egoten dira.

ZUMAIA HISTORIA liburuko argazkiak.



Azkue Autoak

Tel: 943 861433
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067

AITA MARI
kafetegia

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumai

Arkupe



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



Emilio Perez
Elektrosailuen salmenta eta konponketa

ADI

Paloita Eteazarreta, 23
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 143 415
E-mail: adiele@euskalnet.net

ad **AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Kresala
Taberna

Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6

 **taberna
JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

Erromatik Zumaiara

E

romatar inperioa:100 urte K.a.

Egun argia zen hura. Eguzkia Erroma ederraren gainean zegoen dena argituz. Biztanleak oihal zurietatik esnatzen ziren bitartean.

Mendi urrunean entzuten da, lehenengo txoriarekin batera lehenengo korneta soinua:

- Jaiki erromatarrak jaiki!!!! Egun berria hasiera doa, mugi mugi!!!! Jaiki eta lanera!!! Honelako ahots zakarrak entzuten ziren Erroma hirian. Erromatarrek esnatu ziren eta lanera doaz, gogor lanera.

Zaldiak hartuz, jantzi dira eta beraien larruzko oinetakoekin denak atarian bildu dira:

- Entzun!!! Entzun!!! Erromatar gogorrok!!! Hemen da zuekin gure Enperadore miretsia, agur dezagun denok!!!!

Enperadore boteretsua benetan eta baita jakintsua ere. Erromatarrik ez, bera garaituko duen ausardia duenik.

Denak ilaran jarri ziren beraien zaldi eder eta garbiekin. Herrirantz zihoazen eguneroko lanera, beraien burua goretsez eta ohorea mantenduz.

Honelako egunak izaten ziren Erroma ederrean.

Egun lasaiak normalean.

Enperadorea patxadatsu ezarririk zegoen aulkiaren magalean, bere emazte ederrari begira aginduak ematen zituen heinean.

Emazte benetan ederra zuen Enperadoreak. Polita eta emakume ona, egun hartako haizeak bere ile leun eta luzea orrazten zuelarik. Hala ere Erregea benetan itsusia zen, belearen mokoaren antzeko sudurra zuen.

Herrian jendea lanean zebilen, harantz eta honantz gelditu gabe. Eguneroko legea den bezala zerbait nahi duenak izerdia bota behar du. Gogor ziharduten Erromako biztanleak, janaria lortuz eta eguneroko ogia zeukatelako pozik abestuz.

Hala ere, bazegoen kale ertz batetan, mutil gazte bat, amak bidalitako sagar ederrak saltzen zituen.

Jende askok ez zuen sagar gozo haien zaporea gozatzeko gogorik izaten, ezta familia eta seme harekiko errukia ere.



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91



Egunak hostoak airean bezala zihoazen; hilabeteak, lehoi bizkor batzuk bezala eta baita urteak ere.

2 urte pasa ziren jada.

Mutikoa sendotuz zihoan eta gurasoak berriz geroz eta ahulagoak zeuden. Nekazaritzako lanak urritzen hasiak ziren familia umil hartan. Aita, oso goibel eta ahul sentitzen zen, lore batek inguruan sasi handiak dituenen bezala.

Aita, goizero bezala jaiki eta beraien baratz txikira joaten zen egunez egun barazki gehiago egongo zelako esperantzaz eta ahuldura hura, ugarituko zen beldurrez. Bitartean erromatarrek ederki ziharduten beraien eguneroko bazkaria jaten, eta eguneroko betebeharrak eginez.

Semeak lanean

ziharduena bitartean, kale zabaletatik, erromatar soldaduak ziren ageri. Honela momentu hartan erromatar bat mutilaren aurrean kokatu zen. Mutikoak begietara begiratzen zion begirada zorrotzez.

Erromatarrek saskian zuena ikusiz:

- Ei mutilak! JA JA JA begira ezazue mutiko honek saskian duena!!!- barrez zituen erromatar soldaduak.

Nork erosi nahiko dizkio sagar miserable hauek.

-Ez dakit, erromatar jauna, baina asmo ona eta sagar gozo hauek probatu nahi dituenak seguraski- erantzun zion mutilak beldurrik gabe.

Erromatar soldadua haserre bizian jarri zen mutilaren erantzunagatik. Sagarrak hartu eta probatzen hasi zen:

- Aizu, erromatar jauna, sagar hauek nireak dira. Nork eman dizu probatzeko baimena? Erromatar soldadua gorroto bizian saskia lurrera bota zuen, eta alde egin ere.

Mutikoak ondo ikasia zuen bai, erromatarrek garaitu ezinak zirela eta kontuz ibili beharra zeukatela.


Mutila amorru biziz etxera joan zen. Etxeko atea ireki eta gogor itxi zuen. Amak zer gertatu zitzaion galdetzean honek honela erantzun zion:

- Ama hau onartezina da benetan, onartezina da!!!

- Zer duzu, seme. Lasai zaitez, mesedez, eta konta dena aita eta niri.

- Kanean nengoen. Bildutako sagar gorriak saltzen.

- Seme, ba al dakarzu dirua?



GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20/50 ZUMAIA • Tel. 943 861191

EXO
URRATS

INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel/Fax: 943 143 192 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAIA

- Ez ama, zoritxarrez ez. Baina mesedez utz iezadazu amaitzen. Kalean nengoen eta erromatarrak etortzean... Mutil gazteak amari gertatutakoa kontatu zion. Gurasoak benetan ez ziren harritu. Nabaria baitzen benetan, erromatarren harropuzkeria.

- Tira, seme, lasai hadi eta entzun ezak aitak dioena-honela hitz egin zion aitak erromatarren iskei garrantzirik eman gabe eta lasai-.

- Ez du merezi, kankailu batzuei kasu egitea, lasai hadi.

- Ez, aita, ez naiz lasaituko hau dena amaitu arte. Honela esanda, gurasoak aho bete hortz geratu ziren. Egoera latza zen benetan, baina hala ere kezkatuta zeuden semearen egoeraz.

Aita ahul zegoen, oso ahul, baina gizon benetan gogorra zen, zezen baten parekoa.

Errenka zebilen etxe txiki eta heze haren sukaldean zehar. Kanpora irten zen bere makil zaharra harturik. Semea zelaian zegoen, zelaian amorraturik bidezko ez diren gauzei aurre egiteko prest.

Aita hurbildu zitzaion:

- Seme lasai hadi. Ez zegok irtenbiderik. Mundua, aristokratez betea zegok eta gu miserable batzuk besterik ez gaituk, haien menpe bizi gaituk, uler ezak.

- Ez aita, hau ez da honela geratuko. Zin dagizut, esklabuak aske izango direla, saltzaileak saltzaile eta gudariak lege ona defendatuko dutela. Zin dagizut, aita!! Zin!!!!

Hitz hauek esanda mutilak korrika bizian alde egin zuen. Noraezean zebilen hara eta hona irtenbide baten bila. Aitak bazekien semea leiala zela eta baita gogorra ere. Esandakoa

beteko zuela. Baina nola? Nola alda zezakeen legea eta harropuzkeria? Nola lanbideak bideratu?

Galdera hauek egiten zizkion aitak bere buruari. Mutikoa gaztea zen benetan eta oraindik bizi osoa zuen aurretik. Biziak lagun ziezaiola mesedez, eta ikas zezan mutil gazte hark.

Mutil gaztea Enperadorearen jauregira abiatu zen. Bere amak erakutsia zion txiki zenetik gauzak hitzez konpontzen zirela.

Baina ba al liteke pertsona harroputz haiekin? Oso zaila zuen gazteak, bai. Berak ere bazekien. Hala ere mendi gailurreko jauregi ederrera bideratu zen. Nekea zerion aurpegian, eta oinetan, baina gogortasuna odolean.

Bidean zihola, erromatar batzuk bidea igarotzen ikusi zituen. Zaldi eder eta eleganteak zituzten, ez zen Erroman pertsonarik haiek bezalako zaldiak zituenik.

Honela zuhaitz baten atzean ezkutatu zen, eta zelatan geratu, erromatar haiek ziotenaren jakin minez:

- Entzun duzu gobernadoreak eman digun agindua. Herrian dauden saltzaileen produktu guzti guztiak bota eta desegingo ditugu hurrengo gauerdian, baita lurra ere. Erromatarrek aldentzen joan ziren eta mutila harriturik geratu zen. Harriturik eta beldurrez.

Hau entzunik, bira eman eta aldendu egin zen; ulertu zuen harroputz horiekin gauzak ezin zirela hitzekin konpondu. Zerbait pentsatu beharra zegoen. Baina zer?

Mutila herrirantz eta inguruan zeuden nekazarien bila joan zen, arazo honi aurka egiteko. Nekazari eta abeltzaintza munduan ziharduten pertsona askorekin egin zuen topo.

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Denak batuera lor zezaketen burutapenen bat eta arazoa konpondu lasai bizitzeko. Gauerdia baino lehen bildu ziren nekazari eta abeltzainak. Hitz eginez konponbidea bilatu nahi izan zuen. Eta arraroa badirudi ere, zera pentsatu zuten: beraien produktuak lehenbailehen beste nazio eta estatuetara bidaltzea, honela salbu egongo ziren jakiak eta merkataritza.

Arrantzaleak ere bat egin zuten eta itsasontziz garraiatu zituzten produktuak Europa osoan zabalduz.

Honela Euskal Herrira ere produktuak iritsi ziren, eta baita merkataritza sortu ere. Mutila harro zegoen egin zuten lanaz baina hori bai, lana ez zen izan mutikoarena bakarrik, taldelan osoarena baizik.

Zumaiara ere iritsi ziren produktuak.



Basietako Auzolagia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAILA

Galdona



Mendator marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

GIZARTEKINTZA zentru soziala
KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetaarako departamendu

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

**ALTZARIAK
OSTOLAZA
ARROZTEGIA**


Mota guztietako
altzariak eta
arroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

Musikari edo lapurrak?

BRITAINIA HANDIAN 40ko hamarkadaren amaieratik 50eko hamarkadaren amaiera arte Ealing Studios zeritzan produkzio-etxea jarri zen abian. Bereizgarri batekin: film merkeak, herri xehearen bizimodua agertuko zutenak eta umorearekin eginak izango ziren. Ealingen kontratupean lan egindako zuzendari handienetako bat Mackendrick izan zen. Produkzio-etxe honentzat egin zituen bost filmetatik *The ladykillers* hau izango da onena, ziur aski: boskote batek aberastuko duen lapurreta egin beharra dauka. Etxe bat alokairuan hartuko dute etxe-koandreak musikariak direla esanez. Txelo eta biolinaren kaxetan gordetzen dituzte armak. Boquerinirekin minuetoa diskoan martxan dutela burutuko dute egitasmoa. Etxekoandre bera erabiliko dute lapurtutako dirugarraiolaria, berak ezer jakin gabe, baina... Beti da bainaren bat. Hasieratik bukaera arte umore finez blaitutako arte umore finez blaitutako

arte umore finez blaitutako film zoragarria. Bere garaian ikusleak eta zinemako kritikoak harrituta utzi zituen film hau denborak are hobea egin du. Aktoreen lana miresgarria, zuzendaritza milimetrora zainduta, technicolorren erabilera txapela kentzekoa. Hitz batean esanda: ikuslearen argitasunean sinesten duen film jostalaria eta dibertigarria.

El quinteto de la muerte

(The ladykillers, Britaina haundia, 1955)

Zuzendaria:
Alexander Mackendrick

Aktoreak:
Alec Guinness, Cecil Parker, Herbert Lom, Peter Sellers, Dany Green, Katie Johnson

Abenduak 11, osteguna, 22:15ean



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua


Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Z
Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



**Azaroak 20,
osteguna, 22:15ean
Aita Mari zinean**



**CORO
PRIETO**
Esteticista

Bien arteko konbinaketarekin tratamenduetan azkartasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da.

Bonifacio Etxegarai plazakoa z/g. Tel: 943 861 322



Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

ABENDUA ETA GABONAK
Txipli, txapla pum!

IRTEERAK KULTURALAK

- Abenduaren 16an: Kursaal aretora V.Gabonetako Gospel Kontzertura (sarrerak kultur etxean- 943-861056)
- Abenduaren 6an: Jorge Oteizaren museora Tel:943-143396
- Urtarrilaren 17an: Gasteiz: Artium museo-Alde Zaharra-Santa Maria katedrala
- Herrian kultur irteerak: abenduaren 6a eta urtarrilaren 24ean
- Trekking/natur irteera: urtarrilaren 25ean

ERAKUSKETAK

- JOSTAILUEN ERAKUSKETA: Txatxilipudi elkartearen eskutik, abenduaren 3tik 6ra. Ikustordak: 17.00etatik 20.00etara Alondegia aretoan.
- "NOS CASAMOS EN PRIMAVERA" argazki erakusketak. Abenduaren 22tik aurrera Alondegia aretoan. KUTXAren Fototeka.

DEIALDIAK

- ZUMAIKO V. ESKAPARATE LEHIAKETA
Eskaparateak prest egon beharko dute abenduaren 11tik 30era bitartean.
- Saribanaketa, 30ean 20.15etan Foronda kultur etxean.
- Izenematea eta iformazioa kultur etxean (943.861056)
- GABONETAKO BERTSOPAPER-LEHIAKETA (oinarriak kultur etxean)

IKASTAROK

- SUKALDARITZA AURRERATUA - Kutxa Aulak Tel: 943-44.08.63
- SUKALDARITZA BEJETARIANO - Kutxa Aulak
- HAURREN PLASTIKA:

urtariletik ekainera, astearte eta ostegunetan.
Izenematea Forondan urtarrilaren 15a arte (943-861056)
- INTERNET - k.z.gunean 943-862866

ABENDUA

- osteguna 19.00etan kultur etxean, hitzaldia "Gaur egungo idazle baten erronka eta arazoak", Joxe Mari Iturralde
- 7 eta 8 17.00etan haurren zinema "Shin Chan"
- asteazkena 18.30etan Gizarte Zentruan, hitzaldia: JAIME ALTUNA-Urtxintxa Eskola: "Jolasa eta Jostailua: nola aukeratu jostailu egokia"
- osteguna 17.30etan Haur Liburutegian, Apika taldearen ipuin kontaketa saioa "Ni neu, zu zeu"
- 22.15etan zineforum saioa "El quinteto de la muerte"
- ostirala 22.00etan Aita Marin, antzerkia "CABARET LATINO"
- igandea 12.00etan Aita Marin, haur antzerkia "Muzziki" MARIA ETA JOSE ikastetxeak antolatuta, arratsaldeko 5etan "GABONETAKO JAIALDIA". Ikastetxeko ikasle guztiek prestatutako ikuskizunekin gozatzeko aukera.
- asteazkena 19.00etan kultur etxean, hitzaldia "Koloreen eta zenbakien tratamendua euskal usadioan", Patziku Perurena
- ostirala 18.00etan II. Klarinete Topaketen barne, Ipuin-musika-kontaketa, kultur etxean.
- 19.00etan Aita Marin, ZUMAIKO BIDEAren aurkezpena.
- larunbata eguerdian eta arratsalde partean Kofradian Santo Tomas festa.
- 16.30etan Gaztetxolan, Santo Tomas festa
- 18.30etan Maria eta Jose aretoan, II. Klarinete Topaketen barne, Amaiera Kontzertua
- igandea 17.00etan haur zinema "Olentzero"

- 23, astearte 22.15etan zineforum saioa "La última noche"
- 24, asteazkena
Eguerdiko 12etatik aurrera, MARIA ETA JOSE ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoen korua kalez kale ibiliko da. Lortzen duten dirua Indiarako izango da.
"Niño Jesusen eskian", Gabon Koruaren saioak kalez kale... Gabon Giroa
Arratsalde Gabon Abestien Lehiaketa
18.30etan Jaiotza ikuskizuna Eusebio Gurrutxaga plazan.
- osteguna 13.00etan Udal Musika Bandaren Eguberri kontzertua
- ostirala Gaztetxolan, "Lagun Ikustezina"-opari elkartrukea
- larunbata 19.00etan Erribera kalean, Bertsopotea Jokin Sorozabal eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariekin.
- igandea 11etatik aurrera, "Gabonetako Parkea" Odieta pelotalekuan
17.00etan haur zinema "Esquía como puedas"
- astearte 18.30etan Artadiko elkarte, Bertsopotea afari-meriendan
22.15etan zineforum saio berezia "ALIEN el 8º pasajero"

URTARRILA

- ostirala 22.00etan Aita Mari aretoan, Gabonetako Bertsopotea
- igandea 12.00etan Aita Marin, haur antzerkia "Zirko Túpia"
- 18.30etan Errege Magoentzat eskutitzen jasotzea

GABONETAKO VI. BERTSOPAPER-LEHIAKETA

VI. Joanito Dorronsoro saria

- Lehiaketa honetan edozein zumaiairek har dezake parte.
- Parte-hartzaile bakoitzak gehienez lan bakarra aurkez dezake eta gaia honakoa izango da:

Kaleko giroa Zumaian

- Bi kategoria bereizten dira: gaztetxoena (18 urte bitartekoak) eta helduena (18 urtetik gorakoak).
- Gaztetxoek 4 eta 8 bertsopotea egin beharko dituzte. Helduek, berriz, gutxienez 6 bertsopotea egin beharko dituzte eta gehienez 10. Doinua eta neurria norberak nahi dituenak izango dira.

- Lanak idazmakinez edo ordenagailuz idatzita aurkeztu beharko dira, orriaren alde bakarretik idatzita.

- Lanak Foronda kultur etxean aurkeztu beharko dira, 2003ko abenduaren 29a baino lehen.

- Lanak egilea nor den adieraz lezakeen inolako daturik agertu gabe aurkeztuko dira. Lanarekin batera gutunazal itxi batean parte-hartzailearen datu pertsonalak eta telefonoa jarriko dira. Gutunazalaren gainean eta lanaren hasieran ezizen bat jarri beharko da.

- Epaimahaia hala erabakiko balu, lehen 2 sariak emateaz gain aipamen berezi bat edo batzuk egin ahal izango dira.

- Saritutako eta saritu gabeko bertsopoteak argitaratzeko eskubidea izango du Zumaiko Bertsopotea Eskolak, beste argitalpen baten barruan nahiz argitalpen berezi batean.

- Sariak 2004ko urtarrilaren 2an Aita Mari zineman jakinarazi eta banatuko dira, bertsolari gazteen saioaren amaieran.

SARIAK

Gaztetxoetan:

- saria: Txapela, oparia eta 50
 - saria: Oparia eta 30
- Helduetan:



- saria: Txapela, oroigarria eta 200
- saria: Oroigarria eta 125

GABONETAKO V. BERTSO-ASTEA

BERTSO-POTEOA, trikitalariekin. Abenduaren 27an, larunbatean. Erribera kalean, iluntzeko 7ak aldera hasita
JOKIN SOROZABAL ETA ANJEL MARI PEÑAGARIKANO
BERTSO-TOPAKETA AFARI-MERIENDAN
Abenduaren 30ean, iluntzeko 6:30etan.

Artadiko elkarteak
Gaztetxoaren arteko saioa:
ZUMAIA-ZARAUZ
Tarte batean: BERTSOA ETA MAGIA, Jon Martin eta Alain M. Urrutia
Aurrez pilota-saioak eta jolasak
BERTSO-SAIOA
Urtarrilaren 2an, gaueko 10etan
Aita Mari zineman
EKAITZ GOIKOETXEA
IÑAKI GURRUTXAGA
GORKA IRIBAR
IÑIGO IZAGIRRE
JOKIN URANGA
IKER ZUBELDIA

Gai-jartzaile: ITZIAR eta ESTITXU IZAGIRRE
Sarrera: 3 euro

Amaieran VI. bertsopaper-lehiaketako sariak banatuko dira.

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

ekin INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
/elektrozitate, s.l.
ERRIBERA KALEA 18 BEHE TEL/FAX: 943 143097
20.750 ZUMAIA ekin@ekin.es.com

Instalazioak/banatuak ofiziala

CANAL+ Via
CANAL DIGITAL

Telebista
Telebista
Telebista

Telebista
Movistar
Telebista
Movistar

ert
informatika

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

tresna digi
internet
scanner

Dalac
COMPUTER



RPS: 066/02

"Muagi"

Medikuntza eta errehabilitazioa

FISIOTERAPIA

Anne Aramendi

KIROL MEDIKUNTZA

Manu Glez. Aramendi

OTORRINOLARINGOLOGIA

Jose Antonio Martin

KIRURGIA OROKORRA

LISERI-APARATOA

Juan Ignacio Alberdi

PODOLOGIA

Ione Aguirregomezkorta

Aita Mari poligonos, 3, blokea

Tel. 943 86 16 91

Zumaia

S DORNUTEGI

SUKALDEKO ALTZARIAK

Basadi auzoa, 10 behea

Tel: 943 86 20 51



Sukalderako hornikuntza diseinuak

Lanen zuzendaritza

Edozein sukaldetara moldaturiko diseinu bereziak

Kalitate-prezioan parekorik ez

www.dornutegi.com